

Cristina de la Cruz  
Alfredo Olarra

# **Berdintasuna, bazterkeria eta hiritartasuna**

Deustuko  
Unibertsitatea

• • • • • • • •

**Giza eskubideen  
Institutua**

# **Giza eskubideak**



# **Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak**



# **Giza Eskubideeri Buruzko Deustu Koadernoak**

## **46. zenb.**

Berdintasuna, bazterkeria eta  
hiritartasuna

**Cristina de la Cruz  
Alfredo Olarra**

Bilbao  
Deustuko Unibertsitatea  
2008

**Zuzendaritza Kontseilua:**

Jaime Oraá  
Xabier Etxeberria  
Felipe Gómez  
Eduardo Ruiz Vieytez  
Trinidad L. Vicente  
Joana Abrisketa

Debekatuta dago, legearen arabera, argitalpen hau —diseinua eta irudiak barne— bikoiztea, biltzea edo igortzea, ez osorik, ez zatika, ezta inolako bitarteko edo prozedura teknikoren bidez ere, argitaratzailearen berariazko baimenik gabe.

© Deustuko Unibertsitatearen Argitalpenak  
Posta Kutxa 1 - 48080 Bilbao  
e-posta: publicaciones@deusto.es  
ISBN: 978-84-9830-875-4

## Aurkibidea

---

<b>I. Hitzaurrea</b> .....	9
<b>II. Bazterketa, gizarte-justizia arazoa (larria eta konpondu gabea)</b> .....	11
II.1. Bazterkeria kontzeptuari buruzko zenbait ohar .....	13
II.2. Bazterkeria eta hiritartasuna .....	22
II.3. Hiritartasun aktiboa, inklusiboa ote? .....	32
II.4. Excursus-a: Hiritartasuna ulertzeko zenbait era desberdin .....	34
<b>III. Berdintasuna</b> .....	37
III.1. Berdintasunaren alderdiak .....	38
III.1.1. Berdintasun formala .....	38
III.1.2. Berdintasun materiala .....	43
III.1.3. Berdintasuna eskubideetan .....	48
III. 2. Berdintasunaren exigentziak .....	52
III.2.1. Bazterkeriarik eza .....	53
III.2.2. Aukerak sustatzea .....	54
III.2.3. Desberdintasunen babesa .....	56
III.3. Berdintasunaren hauskortasuna .....	58
<b>IV. Hiritartasunerako proposamen bi</b> .....	63
IV.1. Gaitasunen sustapena .....	66
IV.2. Sare sozialen balioa .....	68
<b>V. Erreferentziak</b> .....	71





# Hitzaurrea

Gure gizarteetan berdintasunari balio handia aitortzen zaio. Horretaz ez dago zalantzarik. Joan mendeko proiektu politiko totalitarioek sortu zituzten errezeloa eta susmoak urrun geratu dira. Gure memorian oraindik jarraitzen badute ere, igualitarismo erradikalaren asmo haiek ez dute ezer ikusirik berdintasun gaurko exigentziekin. Lan honen helburua da bere garrantziaz hitz egitea, hain zuzen ere. Izan ere, hori da koaderno honetan garatzea eskatu zigutena: pertsonen bizitza-aukeretan berdintasunak duen garrantzia eta balioari buruzko azterketa.

Orain aitortu behar dugu zeregin hori gure gaitasunetik harago zegoela iruditu zitzaigula, ezen hemen eskaintzen zaigun lekua mugatua zen eta ez genekien sintesi gaitasun hori genuen. Era berean, aitortzen dugu era egokian erantzuteko gure gaitasuna neurritz kanpo baloratu zutela. Luzaroan gure kezka intelektualaren zati bat izan bada ere, gure gizartearen markoan bere garapenari ikusle erne gisa begira, edo egile aktiboak esparru publikoan, zeregina, dena den, handiegia iruditzen zitzaigun. Berdintasunarekin beti gertatzen da berdina: berak eman ahal duen baino gehiago eskatzen zaio. Hala ere, gure gizarteak horren inguruan eraiki dira. Ez dugu ahaztu behar berdintasuna babesten duen balioa justizia dela. Eta ahalbidetzen duena askatasuna da. Uler dezaten irakurleek gure beldurraren zioa.

Hala eta guztiz ere, ikus dezakezue, saiatzea erabaki genuen. Dena den, klausula jakin batzuek baldintzatu dute esku artean duzen lana. Azkenik, onartu genuen berdintasunari buruzko hausnartze gonbidapena ibilbide-orri bat egiteko. Orain horren bat-bateko zirriborroa baino egingo ez duguna. Kartografia horren lehenengo eskemak eskatzen zuen galdera ezartzea: zein da berdintasunaren balioa bazterturiko pertsonen bizitza-aukeretan? Izan ere, lan honek benetan planteatu egiten duena galderak dira, batez ere. Berdintasunaren baliorik garrantzitsuena da ahalbidetzen duena (askatasuna) eta zeren bitartez (eskubi-deak) ematen duen hori. Aukera hori urritua den edozein pertsonak du bere "hiritartasuna" gizartearen bazterretan.

Berdintasuna, bazterkeria eta hiritartasuna. Horiek izan dira gure hiru zutabe, oinarri. Eszenan jartzen joan garen era ez da txiripazkoa. Ez genuen sekuentzia lineala egin nahi izan. Bestalde, ez genuen ibilbidearen amaiera oso agerikoa izatea ere: ez sumatzea aldez aurretik amaiera. Baztertu genuen "flash back" en efektismoa ere. Eta erabaki genuen, azkenik, hiru momentu sartzea. Betidanik jakin dugu hirurak elkarri loturik daudela ezinbestean. Baina gutxitan pentsatu dugu zein eratan. Gure "kontakizuna" istorio erraza da. Saiatzen da azaltzen zeintzuk diren bazterkeria, berdintasuna eta hiritartasuna lotzen dituen sokak. Dagoeneko esan dugu, ez dago amaierarik. Behar baino arinago egin behar izan dugun itxialdi bat baino ez. Falta dena egunen batean idatziko dugun hori da. Orduan, espero dugu era egokian.

# Bazterkeria, gizarte-justizia arazoa (larria eta konpondu gabea)

Berdintasunari buruzko hausnarketa honen hasiera esparru jakin batean kokatu nahi dugu. Printzipio honi buruz asko idatzi eta hitz egin da, gure asmoa ez da sakontzea horri buruz. Interesatzen zaiguna da ikustea zein norainokoa izan behar duen gure gizarteko testuinguruan ezarzen denean. Gure gizarteko errealitateri begiratzean bazterkorra den egitura baten gainean eraikitako testuinguru batekin topo egiten dugu, eta, aldi berean, ahalegin handiak egiten dituen gizarteratzeko. Bizi garen gizarteek gizarte-kohesio eta gizarte-integrazio maila handiak lortu nahi dituzte, baina hori egiten dute, gaurkoz, gizarte-bazterkeriaren jatorria diren egitura ekonomiko, politiko eta kulturei eutsiz. Inklusio/bazterkeria gupil hori bihurtu da desberdinak eta anitzak diren gure gizarteen ezaugarria. Beraz, gure gizarteak gizarte kontraesankorrek ere badira.

Lan honen helburua ez da irtenbiderik aurkeztea gure garaiko arazoei. Hala ere, eskaini nahi dugu azterketa esparru bat ulertu ahal izateko printzipio honek zein dinamika izan beharko lukeen gure garai hauetan. Gure lan hau gizarteetan lortzea beharrezkoa denari buruzko hausnarketa etiko aplikatua izatea nahi dugu, gizarte horiek, desberdintasunak eta bazterketak sortzen dituztenak, injustuak izan ez daitezen. Era berean, balio politikoa ematen diogun etika aplikatuari buruzko hausnarketa ere bada, pobrezia eta bazterketa prozesuen jatorria diren egiturak nola eraldatu azaldu nahi baitu.

Berau bada, beraz, berdintasunari buruzko hausnarketa etikoa, baina enfasia ez du jarriko gizarte-kohesioan gizarte-justizian baizik. Azpimarratuko ditugu gizarte-justizia izateko baldintzaK. Gizarte-justizia izateko zutabeak: aitorpena, banaketa eta ez-menperatzea. Hori dela eta, bazterketak eta bere kausa nagusia den pobrezak izan behar dute derri-gorreetan abiapuntua.

Lan honetan izango dugun jarrera indartzeko hurrengo proposamena egingo dugu: pobrezia eta gizarte-bazterkeriari buruzko ohiko galdera aldatuko dugu. Pobreak nortzuk diren, zenbat diren, bere bazterkeriaren zergatiak zeintzuk diren, talde horren barruan nortzuk sartzen diren

ezartzeko metodo-zailtasunak zeintzuk diren, zein adierazle erabili behar ditugun bere maila desberdinak zehazteko, etabar. Galdera horiek behar-rean, galdera beste era batean egin dezagun: nortzuk dira "barne" daudenak gure gizartean? Eta zergatik? Nola lortzen da "leku soziala" izatea? Zeintzuk dira arauak eta prozesuak "leku" horretara heltzeko? Zein eratan erabakitzen da pertsonak barnean dauden ala ez esateko? Zeintzuk dira baldintzak "barnean" ala "kanpoan" izateko? Zergatik dago loturik hiritarra izatea "barnean" izate horri? Eta, nola dago? Ez dizuegu eskatuko galdera horiei erantzuteko. Izan ere, gure asmoa ez da guztiei erantzutea honetan, gure lan hau horretarako laburregia da-eta. Galdera horietan emandako ikuspegi aldaketak helburu bakarra du: argiago ikustea oraintxe hasiko dugun ibilbide honen azpian dauden arazoak. Jarrai dezagun, oraindik ere, aurrekoari eutsiz pixka gehiago batez.

Desberdintasunak gero eta haustura sozial eta politiko handiagoa sortzen ari direlako argudioa erabiltzen da sarritan eta argudiatzeko era horretan du justifikaziorik handiena kohesio sozialari garrantzia eman nahi izateak. Hala ere, argudio horri gutxitan lotzen zaio gure gizarteek dituzten ezaugarri buruzko azterketa sakona. Gizarteak desberdinak eta anitzak badira ere, horiek guzti horiek ezaugarri komuna dute. Horiek guzti horiek baztertzen dute. Hainbat txostenek egiaztatzen dute desberdintasunen artekoa handitzea, eta guztietan salbuespen gabe (eta honela bazterketariaren zuloa sakonago egiten dute) gure diagnostikoa berresten dute<sup>1</sup>. Pobrezia mailak jaisten diren biartean, desberdintasunak, ordea, handiagoak dira.

Inklusio/baztekeria kontzeptuei buruz hitz egiten dugunean kontuan hartu beharreko eragileak anitzak eta korapilatsuak dira, eta "gertaera" sozial hori fenomeno globalizat hartzeko eskatzen du, erantzun eta errekurso globalak ere eskatzen dituena. Orrialde hauetan horietako batzuei buruz bakarrik arituko gara, eta gainera sakondu gabe. Hala ere, ez dugu nabarmendu gabe utzi hurrengoa: nola edo hala, eragile horietako asko menperatze-egiturekin loturik daude eta gure gizartearen hainbat eremutan argi eta garbi daude. Hori dela-eta, egin behar dena ez da antolatzea estrategiak banaketa sozial ekitatiborako bakarrik, baizik eta egin behar dena da eraikitzea eraldatze-estrategiak gure gizarteetan dauden menperatze prozesuetan.

Menperatze egitura horiek oso ondo sartuta daude gure gizarteko<sup>2</sup> dinamika kulturala, soziala eta ekonomikoetan, eta aldi berean, beti-

<sup>1</sup> Adibide gisa, "Objetivos de Desarrollo del Milenio. Informe de 2007" [New York, 2007] Nazio Batuen Txostena aipatuko dugu. Txosten horretan azpimarratzen da pobrezia mailak jaisten diren bitartean, desberdintasunak, ordea, handiagoak direla.

<sup>2</sup> Erabili ohi da "burdinazko kaiola" adierazpena menperatze-egitura horiek adierazteko.

kortzen dute (eta justifikatu ere justifikatzen dute) egiturazko injustizia sistema, bazterkeria eta pobrezia oinarrian dagoena, hain zuzen ere. Horregatik, behar dena ez da, esan bezala, banaketa sozial ekita-  
tiboak bakarrik. Behar dena da banaketa horretan parte hartu ahal izatea. Arlo ekonomikoan menperatze egitura horiek zuzen-zunean lotu-  
rik daude produkzio-bitartekoen boterea dutenekin, jabetza dutenekin, alegia. Horiek dira nagusiagoa dutenak arlo horretako errekurtsioak eta ondasunak eskuratzeko, eta aipatutako errekurtsio eta ondasunak banatzeko irizpideak ez dira beharko lirakekeenak balizko banaketa ekitatiborako.

Espero dugu hasierako hausnarketa hauek balio izatea liburuaren interesa justifikatzeko. Esan bezala, interesa ez da printzipio honen berrikuspen teorikoa, baizik eta argitzea nola eraman behar dugun praktikara tresna eraginkorra izateko gizarte-bazterkeriaren kontra borrokatzeko.

## II.1. Bazterkeria kontzeptuari buruzko zenbait ohar

Has gaitezen, bada, hurbiltzen berdintasunari buruzko hausnarke-  
ta honetan jomuga hartu dugun kontzeptura. Gizarte-bazterkeriari buruz asko idatzi da<sup>3</sup> azken urte hauetan eta guk ez dugu egin nahi lan honetan erradiografia zehatzik. Era berean, ez dugu egin nahi ibil-  
bidea deskriptiboa ere, zenbait ezaugarri hartuta, kontzeptua zer den azaltzeko. Hala ere, kontzeptuaren ñabardurekin oso zehatzak eta zorrotzak ez izan arren, horrek ez gaitu eraman behar beste muturre-  
ra, hau da, uste izatera irakurle guztiek dakitela “zeri buruz ari garen”. Zehatza izatea beharrezkoa bada ere, luze eta sakon egitea ez da gure helburua izango. Castelek<sup>4</sup> dioena kontuan hartuta: “bazter-  
keria terminoa arreta handi-handiarekin erabili behar dugu”, lan honetan berdintasun printzipioa guk nahi dugun eran berrikusteko kontzeptuaren ezaugarri garrantzitsuenak ekartzea bakarrik nahikoa dela uste dugu.

Has gaitezen orduan ohiko bidetik, eta horretarako “gizarte-bazter-  
keria”ri dagokionari buruz esaten dena azaldu behar dugu. Berari buruz termino zehaztugabea, zabala eta korapilatsua dela esaten da, ikusteko era bakarra ez duena, ikuspegi eta eragile anitzak baizik. Termino hete-

---

<sup>3</sup> Kontzeptuari buruzko azterketa zehatza izateko ikus Askoren artean. “Una propuesta de consenso sobre el concepto de exclusión. Implicaciones metodológicas”, *Revista del Tercer Sector*, znb 5. Luis Vives Fundazioa, Madril, 2007, 15-57 orr.

<sup>4</sup> Castel, R. (1997). *La metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado*. Buenos Aires: Paidós, 447. or.

rogeneoa, eta "izaera" dinamikoa duena eta metatze-arazoa adierazten duena. Baina, hau zer da?

Lehenengo eta behin, esan nahi du eragile askok parte hartzen dutela gizarte-desberdintasunetan. Eta eragiten dituzten kausak asko eta anitzak direla ere bai. Bazterkeria eta berau gure gizartetik behatu ahal dugun ikuspegiak ere anitzak dira. Ondorioak jasaten dituzten kolektiboak eta pertsonak ere anitzak dira. Eta, azkenik, gure gizartean izateko erak ere anitzak dira.

"Bazterkeria" kontzeptua mugatzeko zailtasunak asko direla ikusten dugu. Zailtasunez gain, sinonimoak beti ez diren terminoekin nahasteak zalantzarri egiten du kontzeptua eta hori gertatzen da antzekoak eta alde osagarri komunak dituztelako, gutxi gorabehera.

### *Bazterkeria, pobrezia eta pobretzea*

**Marjinazio** terminoa, orain dela gutxi arte, bazterkeriaz hitz egiteko erabiltzen zen termino batzuetako bat zen. Eta gutxitan eskatu dira haien arteko bereizketa egitea. Marjinazio terminoak biltzen ditu zenbait ezaugarri, albotik bada ere, bazterkerian ere aurkitzen ditugunak. Biek badute zer ikusirik urrakortasun, desberdintasun eta pobrezia-egoerekin. Marjinazioak prozesua adierazi nahi duela eta bazterkeriak, ordea, prozesu horren bukaera, hau da, marjinazio (eta deserrotze) prozesu horren burutzea dela esaten da. Beste alde batetik, egia da gaur egun "bazterkeria" terminoak indar gehiago hartzen ari dela "marjinazio" terminoaren aurrean. Gaur egun bata zein bestea erabiltzen dira hitz egiteko 1) desintegrazioari buruz, 2) urrakortasunari buruz, 3) gizarte-loturaren hausturari buruz, gehienetan enplegu-kolokatasunaren kausa eta harreman-oinarren hauskortasunaren kausa, 4) bazterkeriari buruz, prozesu haren bukaera bezala ulertuta eta, aldi berean, muga-egoerak, muturreko egoerak, gizarte-bazterkeria, pobrezia larria edo erabatekoa (miseria), analfabetismo funtzionala, eta abar sortzen dituena.

**Pobrezia** terminoa bazterkeriarenarekin batera etorri ohi da. Horrelakoetan, dena den, gauzak argiago agertzen dira. Pobrezia terminoa bazterkeriarena baino mugatuagoa dela esaten da eta bizitza duina ez izateko arrazoa material-baliabideen falta dela. Oso ezagunak eta askotan aipatzen dira Towwnsenden hitzak: "Dieta egokia lortzeko, jardueretan parte hartzeko, eta bizi diren gizarteetan ohikoak diren laguntzak eta aitortzen diren baldintzak eta zerbitzuak izateko behar den gutxienekoa ez duten gizabanako, familiak eta taldeak pobrezia egoeran daude. Hau da, pobrezia egoeran daude baliabideak gizabanakoaren edo batzuek besteko familiaren eskakizunak baino askoz beherago daudene-

an, beraz, baztertuta daude komunak diren jarduera, tradizio eta bizitzeko eretatik".<sup>5</sup>

Pobreziari buruz dauden definizio askoren artean aurrekoa oinarri hartzen badugu, zenbait ondorio atera ahal ditugu. Lehenik, esan ahal dugu, pobrezak horrela ulertuta, material eskasiari egiten dio erreferentzia. Eta hori, printzipioz, zenbatu ahalko litzateke, eta, beraz, neurtu ere adierazle batzuen bitartez pobrezia egoera jakin batera era objektiboan hurbiltzeko. Hurbiltze hori gehiago ere zehazteko eta pobrezia-maila desberdinak bereizteko ahaleginak ez dira gutxi izan.

Saiatu den batzuetako bat Jeffry Sachs izan da. Bere liburuan, *El fin de la pobreza*, hiru pobrezia-maila<sup>6</sup> bereizten ditu: muturreko pobrezia (edo erabatekoa), tarteko pobrezia eta pobrezia erlatiboa.

- *Muturreko pobrezak* esan nahi du familiek ez dutela bizirauteko behar diren oinarritzko beharrik. Gose kronikoa jasaten dute, ez dute osasun-zerbitzurik, ez dute edateko ur-hornidura ez saneamendurako zerbitzurik, beren seme-alaben baten edo guztien ikasketarik ezin dute ordaindu, beren etxebizitza babesteko oinarritzkoena – txabolan euria ez sartzeko teilaturik edo sukaldetik kea ateratzeko tximiniarik– eta oinetakoak bezalako oinarritzorik ere ez dute. (...)
- Orokorrean, *tarteko pobrezia* kontzeptuak esan nahi du bizitzeko oinarritzko zenbait baldintza badutela, baina estu-estu bakarrik, hau da, urritasun handia dagoela esan dezakegu.
- *Pobrezia erlatiboarekin* hurrengo adierazi nahi da: familiaren diru-sarrerak ezarritako maila jakin bat, batzaz besteko nazio-errenta kontuan hartuta, baino txikiagoak direla. Errenta handiko herrialdeetan bizi diren pobreak ezin dira heldu ez kultura ondasunetara, ez dibertimendu eta aisiazko ekintzetara, ez kalitatezko hezikuntza eta osasun zerbitzuetara, ezta gizartean gorantz egitea errazten duten abantailetara ere<sup>7</sup>.

<sup>5</sup> Townsend, P. (1979). *Poverty in the United Kingdom*. London: Allen Lane and Penguin, 32. or.

<sup>6</sup> Sachs, J. (2005). *El fin de la pobreza*. Bartzelona: Debate, 51. or.

<sup>7</sup> Sachsek dio: "tarteko pobrezia eta erlatiboa ez bezala, muturreko pobrezia garapenean dauden herrialdeetan bakarrik dago", baina hemen defendatzen dugu muga horiek gaur egun ez dira hain argiak migrazio prozesuengatik, eta honek esan nahi du pobrezaren eremu geografiko hori zabaldu behar dela ekonomikoki errenta "onargarria" edo/eta jasankorra duten herrialdeetara ere (Sasia, P.M. eta de la Cruz.C. (2008). *Banca ética y Ciudadanía*. Madril: Trotta).

Ikuspuntu honen alde ahulak oso ezagunak dira: kuantitatiboa eta objektibagarria den irizpideak kontrasterako balioa behar du neurtua izan ahal izateko. Eta gainera, kontrasterako balio hori gure gizartean dagoen “normaltasun” materialaren arabera ezartzen da. Problema da bizitza normalaren eredu hori ezartzeko irizpideak alde aurretik zehaztu behar direla: hau da, ezarritako “aurre-iritzia”ren arabera bizitza-eredu horien tarteko mailak baino baxuago diren pertsonak pobretzat hartzen dira, eta beste batzuk, aldiz, ez-pobretzat hartzen dira, esandako bizitza-eredu horren gainera gainetik daudelako. Eta, honela, muga horien azpian dauden pertsonak estigmatizatzeaz gainera, ezartzen dira, alde aurretik, gure gizartean benetako errealitateei ez dagozkien bizitzeko erak edo kontsumorako ohiturak, edo eskakizunak eta igurikemak.

Serge Paugam ere pobrezaren oinarritzko erak bereizteaz arduratu den beste bat da. Idazle honen arabera hiru mota desberdintzen ditu: pobrea integratua, pobrea marjinatua eta pobrea deskalifikatzailea. Paugam-ek, Sachs-ek ez bezala, ez du arreta jartzen pobrea egoeraren baldintza materialen zenbatasunezko azterketan, baizik eta arreta handiago jartzen du pobretzea eta bazterkeria eragiten dituzten prozesuetan eta testuinguruetan

Paugam-ek ulertzen du pobrea “gizarte-harreman” terminoaren bitartez. Ulertze era honetarako pobrea sortzen den gizarte-testuinguruak garrantzituagoak dira baldintza materialk baino. Ikus dezagun zer esaten digun pobrezaren oinarritzko era horietako bakoitzari buruz<sup>8</sup>:

- *Pobrea integratuaren* barruan sartzen diren pertsonen “pobre” izena dagokie. Asko dira eta biztanleriaren beste talde batzuetatik ez dira bereizten. Beren egoera oso ohikoa da eta horrexegatik, hain zuzen ere, haiei buruz ari garenean ez dugu hitz egiten gizarte-talde jakina bezala, baizik eta betidanik pobrea izan den eskualde edo inguruari buruz hitz egiten dugu. Gizartean sortzen den debatea antolatzen da, oso modu orokorrean, garapen ekonomiko, sozial eta kulturalaren gainean eta, batez ere, eskualde jakin bati lotzen zaizkion gizarte-desberdintasunen gainean. Ikuskera horretatik, eta pobreak ezein “azpi-maila”koak ez direnez, baizik eta gizarte-talde handiko kideak direnez, ez ditugu estigmatiza-

---

<sup>8</sup> Paugamek jarraian aipaturiko liburuan biltzen ditu guk laburtuko ditugun pobrezaren hiru oinarritzko erak: Paugam, S. (2007). *Las formas elementales de la pobreza*. Madril: Alianza, 97-101 orr.



tzen. Beren bizi-maila baxua da, baina gizarte-sare antolatuen baren jarraitzen dute (...) eta ez diegu ematen gutxiesten den estatusik.

- *Pobreza integratuan* ez bezala, pobrezia marjinetan erlazio mota bat adierazten da eta bertan “pobreak” edo “baztertuak” deiturikoei populazioaren zati txikia osatzen dute. Nola edo hala, kontzientzia kolektiborako zibilizazio modernoek moldakaitzak dira, hau da, garapen industrialak ezarri duen erritmoari eta arauari jarraitu ezin izan dietenak (...) Erakunde sozialek ez dute uste pertsona talde hori kanpoko laguntza gabe gizarteratzeko, ez gizartean ez lan munduan, gai denik. Gizarte-harreman honen oinarrian dagoena da gutxiengo horrek kanpoan, gizarte globaletik kanpo jarraitzen badu, ez ditu zalantzan jarriko sistema ekonomiko eta soziala era globalean. Horren kontra jardun behar da, baina ez diote arreta larregi eman behar arduradun ekonomiko, politiko eta sindikalek. Beste alde batetik, debate soziala ez da antolatzen populazioaren bazterturiko alde horietan, baizik eta profesionalkideen artean ondasun-banaketa buruz. Moldakaitzat hartzen diren pertsonen gizarte-statusa oso hondoratutako dago. Gizarteko esku-hartzeak indartu egiten du gizartetik “kanpo” izateko sentimendua. Estigmatizatuta daudenez, egia da ezin direla askatu gizarte-profesionalek beraiengan duten tutoretzatik.
- *Pertsonak gutxiesten dituen pobrezaren* funtsean gero eta “pobre” eta “baztertu” gehiago dagoen gizarte-erlazioa dago. Produktio-eremuko sarrerak ixten zaizkie eta gizarte ekintzeko erakundeek mendeko bihurtzen dira, eta horrek gero eta arazo gehiago dakar. (...) Era berean, gero eta gehiago dira lana kolokan dutenak eta, horren ondorioz, desabantaila asko izateko egoerak pilatzen dira: diru-sarrera txikiak, bizileku eta osasun baldintza eskasak, familia egoera eta laguntza pribatuko gizarteko sareak hauskorrak dira, zailtasunak benetan parte hartzeko instituzionalizatutako edozein bidez motan, eta gizarte-transferentzia mekanismoekiko menpekotasuna –eta batez ere, asistentzia–, hain da ezinbestekoa, non mekanismoan harrapatuta sentitzen baitira, eta horrek daramatza gizarte-bizitzarako ezgaiak izatera.

Taula 1 : Pobreza ereduak iraurarazten laguntzen duten faktoreak

Ereduak	Garapena eta lan-merkatua	Gizarteko loturak	Gizarte-babesa sistema
Pobreza integratua	Garapen ekonomikoa ahula, ekonomia informala, ezkutuko langabezia. Garatzeko aukera gehiago "Azpigaratuak" edo "azpigaratuak" hartzen diren herrialdeetan	Familia-elkartasunaren indarra, hurbileko pertsonen babesa	Gizarte-erantzute ahula, gutxieneko diru-sarrerarik bermatu gabe.
Pobreza marjinala	Ea enplegu bete, langabezia gutxitua. Garatzeko aukera gehiago gizarte industrial aurreratueta edo aurreratzeko bidean.	Familia-elkartasunak jarraitu edo gero eta txikiagoa izan	Gizarte-erantzutea zabaldu, Gutxieneko diru-sarrera bermatu laguntzagabekoentzat (errekurtso mugatua)
Pobreza gutxieskorra	Langabezia nabarmendu handitu lanaren ezegonkortasuna, gizarteratzeko zailtasunak. Garatzeko aukera gehiago "industriandoko" gizarteetan.	Gizarte-loturak ahuldu, bereziki langabetuetan eta laguntzagabeko taldeetan	nabarmenki igo gutxieneko diru-sarrera bermaturikoaren hartzaile kopurua, handitu pobreei emandako laguntza

Iturria egokitua: Pagan, S. (2007). *Las formas elementales de la pobreza*. Madrid: Alianza, 98. or.

Pobreziaren kontzeptura hurbiltzeko datu horiek dira gehienetan hartzen direnak erreferentzia gisa pobrezia eta desberdintasunak neurtzeko lurralde batzuetan, horretarako baldintza materialei eta egiturazkoei garrantzia ematen zaie, batzuetan handia eta beste zenbaitetan ez horrenbestekoa. EAE-ri dagokionez, esate baterako, jaso dituzten azken datuak (2004 eta 2005) oraintxe ikusi ditugunen antzeko adierazleak erabili dira.

Labur-labur bada ere, interesgarria da hona ekartzea jarraiko txostena<sup>9</sup>:

- Euskadin gizarteratze-politiketan eginiko ahaleginek pobrezia larriko tasak eragin dituztela, eta Europako herrialde aurreratu-  
enen artean gaudela horri esker: Pobrezia larriaren tasak, edo batez  
besteko diru-sarrera baliokidearen %40tik beherako diru-sarrerak  
dituzten familietan bizi diren pertsonen ehunekoak, EAEn %3,7ko  
eragina du, eta 15en Europar Batasuneko herrialdeetarako batez  
besteko tasa %5ekoa da. Pobrezia erlatiboari dagokionez, zeina-  
ren atalasea diru-sarrera baliokidearen medianaren %60an koka-  
tuta dagoen, EAEko egoera ez da hain positiboa besteekin konpa-  
ratuta, baina %16,5eko eraginarekin EB-15eko batez besteko tasa  
baino zerbait beherago dago (%17).
- Mantentze-pobrezia eta metatze-pobrezia bereiziz<sup>10</sup>, 45.000 eus-  
kal familia inguru -familia guztien %6,2- bi pobrezia mota horie-  
tako batean daude, eta 110.000 lagun (biztanleen %5,2) barne  
hartzen ditu. Pobrezia arriskuko bi mota horiei dagokienez, egoe-  
rari ohikoena soilik mantentze-pobreziaren eraginpean dauden  
pertsonena da: Biztanleen %3,5 (73.718 lagun) egoera horretan  
daude, eta %2,2 metatze-pobreziaren eraginpean daude. Bi  
pobrezia horien eraginpean dauden kopurua biztanleen %0,5 da  
(4.000 familia inguru).

---

<sup>9</sup> Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Plana 2007-2009. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza. <http://www.juslan.ejgv.euskadi.net> [2007ko abenduan deskargatua] EAEko Gizarteratze-planak bazterkeria jasaten duten pertsonak gizarteratzea lortzeko eskumena duten administrazioen esku-hartzea eta jarduera bideratuko duten ildoak jasotzen ditu.

<sup>10</sup> *Mantentze-pobrezia*: errenta-maila baxuak dituztenak, egoera hori koiunturala izan ohi delarik, baina asko irauten duten kasuak ere badaude, eta hortik ateratzeko enplegu normalizatu bat lortu behar da, edo bestela gizarte prestazioen zenbatekoa premietara egokitu behar da. *Metatze-pobrezia*: aurrezkirik edo lehendik metatutako baliabiderik gabe.

- Datuek erakusten dute pobrezia-tasen aldeko bilakaera epe luze-  
ra, baina egonkortzeko joera baten barruan. Adierazi behar da  
pobreziaren euspen hori immigrazioaren, etxebizitza bezalako  
oinarrizko ondasun baten garestitzearen eta independizatzeko  
prozesuaren blokeo baten testuinguruan gertatzen dela, eta  
horrek familia independenteak handitzea ekarri du, horietako  
asko baliabide propio ezegonkorrekin.
- Ikusitako problematikaren zati handi bat, azken lau urteotan  
pobreziaren profileen hiru alderdiren eraginaren ondorioz gertatu  
den eraldakuntza sakonari loturik dago, honako hiru alderdi hauei  
loturik, alegia: guraso bakarrek familien gero eta arazo ekonomi-  
ko handiagoak, immigrazioa, eta okupazio egonkorra ez duten  
gazteek bizitza independenteari ekitea. Datuek erakusten dute  
pobrezia-arriskua askoz handiagoa dela pertsona bakarrak buru  
dituzten familietan (batez ere seme-alabak badituzte beren kargu-  
ra), pertsona dibortziatuetan, 35 urtetik beherakoetan, ikasketarik  
gabeko pertsonetan, langabetuetan eta, oso bereziki, Europar  
batasunetik kanpoko etorkinak.
- Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsona-tal-  
deekin egindako jarraipen-azterlanek erakusten dute pertsona  
horien artean gizarteratzerantzko aurrerapen geldoa baina kons-  
tantea gertatzen ari dela. Egindako ikerketek era berean erakus-  
ten dute gizarte-bazterkeriako sentimendurik ez dagoela eta ego-  
era ekonomikoa nahiko normalizatuta dagoela.
- Zenbait joera eta problematika esanguratsu:
  - Pobreziaren eta gurasobakar izatearen feminizazioa.
  - Pobreziaren lurralde-kontzentrazioa. Poliki-poliki pobreziaren  
urbanizazio-prozesu bat gertatu da.
  - Soldata baxuak eta enplegua babesteko ahalmena gutxitzea. Eus-  
kadin pobreziari eta ongizaterik ezari loturiko arazo gehienak lan-  
gabeziari, lanaldibaterakotasunari eta soldata baxuei loturik daude.
- Kontestuaren zenbait ezaugarri:
  - Langabezia-tasen murrizketa ikusgarria eta okupazio-tasen haz-  
kunde ikaragarria, EAE ia erabateko enpleguko egoeran koka-  
tuz. Hala eta guztiz ere, enplegu indizeen hobekuntzak ez due-  
la pobrezia-tasetan neurri bereko murrizketa ekarri.
  - Etxebizitzaren prezioaren hazkunde ikaragarria. Prezioen igoerak  
ekarri du etxebizitza euskal familien arazorik larrienetako bat  
izatea.
  - EAEn erroldatuta dauden etorkinen kopuruaren hazkunde han-  
dia. Etorkinen pobrezia larriaren tasa 2004. urtean %23koa zen,  
eta etorkinak ez ziren biztanleen %3,1 bakarrik ukitzen zuen.

Egin dugun ibilbidea ez da oso zehatza izan, baina, behintzat, balio izan digu jarraiko ondorioa ateratzeko: pobrezari buruzko ikerketak bilakatzen, aurreratzen joan dira. Hasierako ulertzeko era estatiko, dimentsio bakar eta kutsu ekonomizista nabaria izatetik ulertzeko era dinamikoago eta erlazio gehiagokoa izatera igaro da. Adiera horretatik pobrezia jarraian adierazten den moduan ulertzen da:

- gizarte-kategoria, pertsoneri, familiei edo talde-pertsoneri dagokiena. Aldez aurretik ez da usten horiek guzti horiek direnik bere pobrezaren erantzuleak. Kaltetuak dira eta injustizia sufritzen dute. Pobrezia jasaten duten pertsonak ez dute hura bilatzen, ez desiratzen.
- Dimentsio anitzeko gizarte fenomenoak, baldintza materialekin bakarrik loturik ez dagoena, baizik eta baldintza kulturala eta sozialekin ere loturik dagoena. Gizartearen egiturazko arazoari egiten dio erreferentzia.
- Ondasunak gutxi eta mugatuak direnean, banatzeko orduan, agerian jartzen dira desberdintasun-baldintzak izatea errekurtsuak emateko eta lortzeko.
- Baztertu egiten duen prozesua, hiritartasunaren jardun eraginkorrerako baldintzak mugatzen dituena.

Orduan, esan ahal dugu kontzientzia dagoela pobrezaren inguruan: pertsonak, familiek eta taldeek dituzten errekurtsu ekonomiko, gizarte-ko eta kulturalak oso mugatuak direnean eta horrexegatik bizi diren gizarteetan onargarria den bizimodutik bazterturik daudenean, pobrezia-egoeran bizi dira<sup>11</sup>. Babesa eta Gizarte-Bazterkeria Baterako Txostenean jarraikoa esaten da: pobrezia eta bazterkeria gizarte bizitzan parte hartu ezintasunetik emaitza da, eta horren ondorioz, enplegu, hezkuntza, formakuntza, etxebizitza, garraiora eta osasunerako sarrera egokia ez dago<sup>12</sup>. Adiera horretan **prekarizazio**ari buruzko aipu interesgarria eta beharrezkoa sartu ohi da, eta guk ere lehenago aipatu duguna. Prekarietatea lotzen zaie pertsona jakin batzuek dituzten urrakortasun, segurtasun-falta eta arrisku baldintzei: segurtasun falta eta lanaren eze-gonkortasuna, soldata baxuak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, eta abar. Beharbada prekarizazioa ez da egongo zuzenean loturik bazterke-

<sup>11</sup> 1984ko abenduaren 19ko Europako Komunitateen Kontseiluaren Irizpena. Bazterkeriaren kontrako Europako Programei dagokiena.

<sup>12</sup> Europako Batzordea (2005). *Babesa eta Gizarte-Bazterkeria Baterako Txostena* 2005, 6. or: <http://eur-lex.europa.eu>

riarekin, baina kontuan hartzen ditu alde aurretiko baldintzak eta prozesuak bere sarrera-bidea izan daitezkeenak.

## II.2. Bazterkeria eta hiritartasuna

Aipatutako horiek, zehaztasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, izan dira "Bazterkeria" terminoak azken garaietan izan dituen mugak. Baina 90 urteak arte ez ziren agertuko nabarmen eta era garbian erakunde publikoetako adierazpenetan.<sup>13</sup> Norabidearen aldaketak ("pobrezatik gizarte bazterkeriara") duen helburu garrantzitsuena da fenomeno horretara hobeto hurbiltzea, ezen gaur egun arte pobrezari buruz egin diren azken azterketek ikuskera zabalago eta sakonago behar baitzuten. Egia da gaur arte definizioaren oinarria alde materiala izan dela, eta, honen ondorioz, material-baliabidei (ekonomikoei bereziki) berebiziko garrantzia eman zaiela, hala ere, astiro-astiro beste faktore eta adierazle batzuk gero eta garrantzia handiago hartzen ari direla ere bada egia. Hasi dira kontuan hartzen beste dimentsio batzuk, problema-ren egiturazko jatorria azpimarratzen dituztenak, hain zuzen ere. Jada, ez da begiratzen lupa bakar batetik, baizik eta gurutzatzen dira lente desberdin batzuk eta honela lortzen da fenomenoaren ikuspegi zabala-goa, garbiago eta osoagoa. "Material-baliabiderako eskuragarritasun gutxitua", "diru-sarrera baxuak", "lan merkatutik aldentzea" bezalako aldagaiak beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoak. Hasi dira kontuan hartzen beste adierazle batzuk, lan munduan sartzeari eta gizarteratze-ari esker, bizitza duina garatzeko beharrezko oinarritzko baldintzak direnak (hezkuntza, enplegua, etxebizitza, partaidetza, gizarteko harremanak, eta abar). Nabardurak doitzen dira: pobrezia bazterkeriaren barnean dago, baina ez dute derrigorrean loturik joan behar. Bazterkeria egoera guztiek ez dute biltzen pobrezia-egoera larririk. Eta, era berean, pobrezia egoera guztiak ez dira bazterkeria-egoerak. Astiro-astiro bada ere, gaur egun esan dezakegu bazterkeria kontzeptu honen gainean nolabaiteko kontzentzu osatzen duten elementu batzuk batzen ari direla.

Bazterkeria kontzeptuak ditu, lehenago esan bezala, izaera prozesuala, kausa asko eta dimentsio anitzak. Gure ustez, ezaugarri horiek batzen dira 2007ko urtearen hasieran aditu askotako talde batek sinatu zuen definizio batean, eta *Tercer Sector* aldizkariaren "Gizarteko bazterkeria"ri buruzko monografikoak dakarrena:

<sup>13</sup> Europako Batzordea hasiko da erabiltzen "pobrezia"ren ordez "bazterkeria" terminoa 1989ko Bazterkeriaren kontrako Europako II Programan.

Gizarteratzeko egoeratik urruntze-prozesu progresiboa da, zeinetan intentsitatearen arabera maila desberdinak bereizten diren: prekarietatetik edo urrakortasunetik bazterkeria-egoera larrienera. Egoera horietan, batetik, oztopoak eta arriskuak pilatzeko prozesua gertatzen da esparru desberdinetan (lanekoa, harremanekoa eta bizitzekoa) eta, bestetik, mugatzen dira beste norbaitek babestua izateko eskuartzeko aukerak.<sup>14</sup>

Hemen ere gurea egiten dugu aurreko hurbiltze hori, eta definizioari lotzen zaion elementu garrantzitsuenetako bat azpimarratu nahi dugu, hau da, nabarmendu nahi dugu bidea ematen digula aurrera joateko berdintasunari buruzko gure hausnarketa honetan.

Bazterkeriari buruzko gogoetek arreta jartzen dute esparru politiko, ekonomiko eta soziokulturalen partaidetzaren mugetan, berau baita gizarte-bazterkeria prozesua definitzeko balio duen bereizgarrietako bat. Horren ondorioz, "partaidetza" kontzeptua oso garrantzitsu eta ezinbesteko elementua dute gizarte-bazterkeriari buruzko ikerketa lerro guztietan. Partaidetzari dagokion gabezi horrek kontu garrantzitsuak ekartzen ditu: nabarmentzen ditu zeintzuk diren mugak oinarriko gizarte-eskubideez baliatu ahal izateko gizarteko-loturak galtzen direnean. Oinarriko eskubide horietaz baliatzeko ezintasunak badu eragina eskubide politiko eta zibiletan ere, eta honela gizarte-bazterkeriaren dimentsio guztietan dagoen bretxa handiago egiten da: politikoa (abstentzioa eta pasibotasuna), gizartekoa (gizarte babeserako eskumen mugatua) eta ekonomikoa (normalizaturiko soldata-erlaziotik kanpo eta pobrezia). Partaidetza gabezi honek beste ondorio bat dakar: bazterkeria jasaten duten pertsonen hiritartasun-kondizioa galtzen dute.

EAEko Gizarte Bazterkeriaren Aurkako 12/1998 Legean jasoa dago hitz egiten ari garen ideia berbera. "Zioen adierazpena" izeneko atalean ematen dio hasiera testu ofizialari hurrengo azalpenarekin:

"Gizarte-bazterkeriaz dihardugunean, ez gara pobreziaz hitz egiten ari, pobrezia dena delako gizarteko ongizateko erdiko mailak dituen ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko zailtasuna edo ezintasuna dela uste badugu. Harreman-sarearen prekarietatearekin batera, pobrezia da gizarte-bazterkeriaren agerpenik bistakoena, baina ez da gizarte-bazter-

---

<sup>14</sup> AA. "Una propuesta de consenso sobre el concepto de exclusión. Implicaciones metodológicas", *op.cit.*, 29. or.

keriaren muina. Bazterkeria gizarte-eskubideak gauzatzeko ezintasuna edo gaitasunik eza da, batez ere lan egiteko eskubideaz baliatzeko ezintasuna, baina baita hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea, kultura, osasuna, etxebizitza duina izateko eskubidea edo gizarte-babesa jasotzeko eskubidea ere.

Zalantzarik gabe bazterkeriako prozesu eta egoerak, hau da, pertsonaren eta gizartearen artean dagoen lotura haustea, produkzio-prozesuan ez parte hartzearen ondorioa da, neurri handi batean.

Gure gizarte modernoan lana da gizartean eskubide eta betebeharrak eskuratzeko biderik hedatuena eta baita gizarteak pertsonarekiko gauza bera egiteko modua ere. Hori horrela izanik, lan egiteko eskubidea ezinbesteko eskubidea da oso osoko herritar bihurtzeko, eta erabateko esanahia eskuratzen du, gainera, eskubide politikoen artean.

Lan-merkatuan parte hartzen ez bada, edo oso neurri txikian hartzen bada parte, ia nahitaez bazterkeria nagusitzen hasiko da, eta horrek bete-beteko eragina izango du beste gizarte-eskubide batzuetan. Dinamika horrek harrapatuz gero, gabeziek eta menpekotasunek, bata bestearen ondoren pilatzeaz gainera, bata bestea indartu egingo dute.

Hala ere, gizarte-bazterkeria ezin dugu erraz bereizteko moduko egoera jakin batzuetara mugatu, bazterkeriak era askotako ondorioak dituelako eta hainbat gradutan agertzen direlako.

Gaiari ikuspegi orokor horretatik heltzen badiogu, pertsona batek bazterkeria jasaten duela esango dugu pertsonari herritar estatusa ematen dion gizarte-eskubideren bat edo batzuk ezin dituenean gauzatu, neurri handiagoan edo txikiagoan; hau da, baztertuta egongo da eskubide horiek aurrera eramateko beharko lituzkeen baliabideak bere esku ez dituen pertsona (direla pertsona- baliabideak, gizarte-baliabideak edo diru-baliabideak).

Gorago emandako azalpenen arabera, eta erabat zehatzak izateko asmorik eduki gabe, ondoren aipatzen diren pertsona-motak baztertuta daudela esan ahal izango dugu:

- a) jateko oinarrizko premiak betetzeko behar beste diru ez duten pertsonak.
- b) etxebizitza duin bat eskuratu eta baldintza onetan mantentzeko beharrezko baliabideak ez dituzten pertsonak,
- c) eta modu orokorragoan, oinarrizko gizarte-eskubideak (lan egiteko eskubidea, hezkuntza jasotzeko eskubidea, osasuna izateko eskubidea e.a.) eskuratzeko aukerarik ez duten pertsonak; izan ere, egoera horretan egonda, bizimodu independente era-



bat normalizatua aurrera eramateko aukerarik gabe geratzen dira".<sup>15</sup>

Hiritartasun ulertzeko era hori estu-estu loturik dago bazterkeriaren kontrako politikekin eta horren funtsean dago gure hiritartasuna komunitatean dugun partaidetzari lotzen zaiola. Hiritartasun kontzeptu hori bereizten da beste batetik, partaidetza azpimarratzen ez duena, komunitate politiko jakin bateko kidea izatea (pertenentzia) baizik.

Arreta eta arrakasta gehien lortu dituzten hiritartasun teoriak<sup>16</sup> izan dira eskubide-partaidetzarekin loturikoak, hain zuzen ere. Ohikoa izaten da T.H.Marshall<sup>17</sup> soziologoaren eragina onartzea, gizarteko hiritartasunari buruzko bere proposamenari esker, berdinen gizarteko kide guztiak eskubide osoko kide bezala tratuak izan daitezzen. Horrek suposatzen du gizabanakoei gero eta hiritartasun-eskubide gehiago aitortu behar izatea. Estatuak gero eta gizarte-eskubide gehiago bermatu behar ditu, eta honela ziurtatzen da kide bakoitzak bete-betean parte ahal izatea elkarbitzian

Marshallen hiritartasun eredu hori behin eta berriro aipatzen da hiritartasunari buruzko ikerketan. Hemen horrek dituen bi ardatz nagusieki bakarrik gagozkie. Eredu hori eraikitzen da lehenik, eskubide identifikazio batekin, bigarrenik, historian zehar sortu zireneko ibilbidea deskribatuz. Horietako aldi bakoitza eskubideen dimentsio zibil, politiko eta sozialari dagokio. Eskubide zibilak sortu ziren XVIII mendean izan ziren aldaketa politiko eta ekonomikoen ondorioz: erakunde legalek gizarteko hiritartasun mantendu zuten, eta jabetzarako eskubidea bermatu zuten, hala nola beste oinarrizko askatasun batzuk (elkartzeko askata-

---

<sup>15</sup> 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa, Gizarte Bazterkeriaren aurkakoa (EHAA 105; 98/06/08koa). Ordutik aurrera, beraren aldaketa edo aipatzen dituen tresnak edo prestazio ekonomikoak aldatzeko prozesuak hurrengoak izan da: 198/1999 Dekretua, apirilaren 20koa, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera arautzen duena (EHAA 94, 99/05/20koa). 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agiriarena. (EHAA 249, 00/12/30koa) Agindua, 2001ko otsailaren 14koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sail-buruarena, oinarrizko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzeko dena. (EHAA 37, 01/02/21) 4/2003 Legea, ekainaren 25ekoa, Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legea aldatzen duena. Agindua 2004ko urriaren 8koa, Oinarrizko Errentaren eskabide-eredu berria argitaratzeko eta prestazio buruzko dokumentazioa euskarri informatikoan bidaltzea arautzeko dena. 4/2007 Legea, ekainaren 22koa, Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriaren abenduaren 27ko 10/2000 Legea aldatzekoa.

<sup>16</sup> Atal hau hiritartasunari buruz dauden ikuspegi garrantzitsuenak biltzen dituen excursus labur batekin ixten da.

<sup>17</sup> Marshall, T.H. (1950). *Citizenship and Social Class*. London: Pluto Press.

sunak, komertzio askatasuna, ordezkariak zentsitarioak, eta abar). Eskubide politikoak XIX mendean izan ziren iraultza burgesen ondorioz: poliki-poliki demokraziaren garapenak indartu zuen hiritasun politikoa (gizonezkoen sufragio unibertsala, mugarik gabeko partaidetza politikoa, askatasun negatiboak –ez bortxazkoak–, pertsonen bizitza pribatuetan ez sartzeko eskubidea, eta abar). Gizarteko eskubideak XX mendean lortzen dira estatuak zenbait eskumen hartu ahala: pertsona guztientzako irakaskuntza sistema, aukera ekonomikoak zabaltzea, guztientzako osasun zerbitzuak, lanari loturiko arriskuen babesa, gizarteko laguntzak, sozial eta ekonomikoki ahulenak direnentzat, eta abar.

“Eboluzionista eta banatzaile” eskubideen teoria horrek eskaini zuen aurrerapen kutsua eta gizartekiden hiritasun kondizioaren zabaltzea: lehenengoak izan ziren zuriak eta jabeak (gizonezkoak, jakina), gero poliki-poliki gehitzen joan ziren emakumeak, langileak eta hiritasunetik, eta horri loturiko eskubideetatik, “bartzeturiko” beste batzuk. Gaur egun osoko hiritasuna hauteskundeetan gehien erabiltzen den sloganetako bat bihurtu da (eta zenbait lurraldetan agindu hori beste neurri batzuekin bizi da, esate baterako Frantzia 2008an paperik gabeko 25000 etorkinen deportatzearekin, hain zuzen ere).

Marschallek egin zuen gizarteko hiritasun ulertzeko era horrek jaso duen kritikarik garrantzitsuenetako bat izan da hiritasun “pasiboa” eta “privatua” dela: eskubideen ikuskera pasiboan oinarritzen da eta esparru publikoan parte hartzeko beharrari buruz eta erantzukizunari buruz ea ez du hitz egiten eta horretaz gainera, eskubideen onura jasotzen duen hiritarrei halako rol “jasotzaile” ematen die, beraz pasiboa ere bai. Estatuak bermatzen dizkie hiritarrei zenbait gizarte-eskubide. Horretarako ondasunak eta zerbitzuak ematen ditu, batzuetan guztientzak (berdintasunezko banaketa) eta beste batzuentzat proportzionalki banatzen dira zenbait irizpideren arabera. Irizpide horiek batzuetan (desabantailak gaindiezinak direnean) konpentsatzaileak dira, eta beste batzuetan (desabantailak gaindi daitezkeenean eta, ondorioz, iragankorrak) ekintza positiboan zentratzen dira. Gizarte-eskubide horiek bermatzearekin bilatzen da, aurrerago aipatu dugun Gizarte Bazterkeriaren kontrako Legeak zioen bezala, hiritarrek bizitza independentea eta erabat normalizatuak garatzea, hau da, hiritarrek beren autonomia pertsonala eta askatasuna garatzeko aukera izatea.

Egia da ahula dela gizarte-hiritasun ulertzeko era horren izaera asintentsiala eta pasiboa behin eta berriro gogoratzen duen argudioa: bidezkoa da aitortzea pertsonak beren bizitzan zehar izan ditzaketen urrakortasun, menpekotasun eta prekaritate-egoera batzuetan, subjektu “hartzaileak”, pasiboak izateko, laguntza edo gizarte-zerbitzuak jasotzeko “eskubidea” oinarritzeko beharrak ase eta bizitza duina gara

dezaten. Hori ez da zerbait iraingarria edo gutxiespenekoa. Behintzat ez luke izan beharko. Neoliberalak kontrakoa baieztatzeko ageriko ahalegina gorabehera, Estatuaren ardura da eskubide horiek babestea eta bermatzea gizarte-politika jakin batzuen bitartez. Gainera, gizarte-berme orokor hauek sor dezaketen pasibitateak ("eskuin berria"ren "beldurra") ez die ihes egin politika publikoen helburuei: martxan jarri dira zenbait estrategia gizarte-laguntzak sor dezakeen menpekotasun luzearekin amaitzeko.

"Inklusio Aktiboa"ren fenomenoak adibide dugu planifikaturiko ekonomia batean har daitekeen ekimena gizarte-justiziaren helburuak bete ahal izateko. Estrategia horrek nahi du eskaini zenbait gomendio lan-merkatutik kanpo edo urrun dauden pertsonak horretan sartu ahal izateko. Horretarako hurrengoa proposatzen du: "errentaren arabera ematen diren laguntzak behar beste aldatzea bizitza duina eraman ahal izateko, lan-eskaintzekin lan-merkatuari lotuz eta trebakuntzarako gizarte-zerbitzuen lorpideak erraztuz"<sup>18</sup>.

Oso deigarria da neoliberalen erantzunek izan duten oihartzuna gure gizartean gizarte-bermeek izan duten aurrerapen "gaizto"en aurrean. Horrenbeste ekin dute, ezen ezinezkoa baita ez aipatzea gizarte-hiritartasunari buruz edozein aipamen egiten denean. Beraz, ezin da saihestu gure "gizarte-inkontziente"an ondo baino hobeto erroturik dagoen dudaren itzala: lanari loturiko balioen galera, merituen pizgarriaren eta ahalegin pertsonalaren gutxiespena, ekonomia ez-eraginkorra, estatu ongilearen paternalismoa..., horiek dira sortzen diren arriskuak gizarte-justizia jartzen denean zilegizko eskubideak diren jabetza eta merkatu libre eskubideen aurretik. "Gizarte-aurrerapen" horren arriskuak aitzakia, "eskuin berria"k erreforma asko bultzatu ditu, esate baterako, erantzun pertsonala sustatu nahi izan du: pertsonak dira beren kabuz mantendu behar dutenak eta beraiek dira beren behar ekonomikoak betetzeko ardura dutenak. Hala ere, gutxitan nabarmendu dira neurri horiek oso emaitza txarrak izan dituztela. Kymlickak eta Normanek dioten bezala: "erreforma horiek hiritartasun arduratsua eragin duen probarik aurkitzea zaila da". Zerbait gertatu bada, -diotegutziz kontrakoa izan da: "ez-erregulatzailerik ekimen askok ekarri zuten aurretik ezagutu ez den aseeratasun eta arduragabekeria ekonomikoa, esate baterako, Estatu Batuetan<sup>19</sup> aurrezkiei, maileguei eta titulu-

<sup>18</sup> COM(2007) 620 amaiera: *Gizarte babesa modernizatu justizia sozial handiago lortzeko eta kohesio ekonomikoa indartzeko: sustatzea lan merkatutik urrunen dauden pertsonen inklusio aktiboa*. Bruselak, 2007. 10.17. <http://eur-lex.europa.eu>, 2. or.

<sup>19</sup> Kymlicka, W. eta Norman, W. (1997). "El retorno del ciudadano. Una revisión de la producción reciente en teoría de la ciudadanía", ikus *La Política: Revista de estudios sobre el estado y la sociedad*, zenb 3, Bartzelona, Paidós, 11. or.

komertzializazioari loturiko eskandaluek erakutsi zuten moduan". Beharrak eta erantzukizunak orekatzeko bideratutako ekimenak ("eskuin berria" k eskatzen duen moduan) beste leku baten bilatu behar dira, beste politika progresistago batzuek sustatu dituzten ekimenetan, hain zuzen ere. Horren adibidea dugu Danimarka bezalako herri batzuetan malgusegurutate estrategiaren arrakasta, eta Europako Batzordearen<sup>20</sup> agendan jaso dena.

Printzipio neoliberalak kolokan jarri dute gizarte-hirikortasuna, eta horrek ekarri du zenbait gizarte-eskubidek atzera egitea eta berrikustea, eta, ondorioz, lehiakortasuna eta beste zenbait printzipio indartzea, adibidez, jabetza eskubidea eta merkatu eskubidea. Kezkagarriena dena da kritika hauek sortarazi zuten gizarte-hiritartasunarekiko konfiantza faltari ez zitzaiola eman hiritartasun ulertzeko beste era alternatiborik. Horren ondorioz, giza-hiritartasuna lanaren gizarte-kategoriaren arabera ezarri eta arautu zen. Eta eskuin berriak bere kritikak oinarritzeko erabili zuen logikak aurrean esandakoan aurkitu zuen argudio ezin hobea, eta muturrera eramanez, berebiziko garrantzia eta eragina izan du: esan bezala, gure gizarteetako antolakuntza sozial, politiko eta ekonomikoen esparruan eskubideak eta erantzukizunak nola antolatu behar diren debatearen harrotzea eskuinaren meritua izan da. Gizarte-hiritartasunak ekarri zuen "behar gabeko eskubide" en euri jasa atzean geratu zen eta "beharrak eskubideen aurretik" eskakizuna nagusitu zen eskuin kontserbadoreak eskatzen zuen moduan. Norabide aldaketa horrek bete betean jo du pobrezia eta bazterkeriaren kontrako politiken aurka. Bazterturiko pertsona-taldee, kontserbadoreen ikuspuntutik beren egoeraren erantzuleak direnak, kendu edo ukatzen zaie hiritartasun kondizioa merkatuaren logikak eskatzen duena bete ezin izateagatik.

Gizarte-eskubideak kolokan jartze horrekin batera, gaur egun hasi da indarra hartzen hiritartasunak sozietate zibilean izan beharko litzuzkeen funtzioen inguruko debatea. Onartu behar da hori ere eskuin berriaren jarrerek sustatu duten debate irekiaren ondorioa dela, hau da, gizarte-bizitzaren esparru desberdinetan herritarrek ea zein funtzio eta partaidetza eduki behar duten debatea, alegia. Esan behar dugu

---

<sup>20</sup> COM (2007) 359/2007eko ekainaren 27ren amaiera: *Towards Common Principles of Flexicurity: More and better jobs though flexibility and security*. [http://ec.europa.eu/employment\\_social](http://ec.europa.eu/employment_social). Malgusegurutate terminoarekin konbinaturiko estrategia batzuk adierazi nahi dira lehiakortasuna, enplegua eta lan-asetzea sustatzeko. Horretarako malgutasuna eta seguritatea konbinatzen dira. Komunikazio Batzordean jasotzen denaren arabera, bigarren elementua eskubideen eta erantzukizunen arteko oreka egoikitua (langileena, enpresena eta botere publikoena) lortzean datza. Horiek guztiek enpleguari, gizarteari eta hazkunde ekonomikoari lagundu behar diote.

hiritartasun ulertzeko era hori indartu dela batetik, gero eta handiagoa den partaidetzaren ondorioz (oraindik mugatua izan arren), gure gizarteetako esparru desberdinetan dagoen beste eragile bat bezala hartuta, eta bestetik, sarean elkartzearen sendotzeari esker. Ez da hori bakarrik, baizik eta horren ondoan (oso harrera onarekin), irmoki eta heldutasun handiagoz, hiritartasun berriak eskubide berriak aitortzea eskatu du. Azken urteek eskenatoki berri bat antolatu dute halako kutsu kontserbadorea zuen "eskubide-beharrak" debatearen inguruan aritzeko. Beraz, haize berriek bestelako norabideetarantz jotzen dute gero eta hobeto egokitzen den "eskubideak bai, beharrak, ere bai" bikoterako. Egia da debatea bete-betean sartu dela esparru politiko eta sozialean. Joera berriak bideratzeko asmoz, ezkerak erabili dituen neurriak gero eta zehatzagoak dira: hiritartasun eskubidea, gizarte ongizate sistemaren garapen eraginkor eta koordinatua, eta abar. Beste alde batetik, debateak jo du lurra, eta gizarte-politika konkretura jaitsi da: lan-merkatua, menpekotasuna duten pertsonen babesia, eta abar. Dena den, eraginik handiena islatzen da gure testuinguru hurbilenean poliki-poliki garatzen eta onartzen ari diren gizarte-zerbitzuetako legeetan.

Honela, aurreikusita dago EAEn 2008ko urtarrilerako onartzekotan Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zen Gizarte Zerbitzuen Legea. Horretan jasotzen da hiritar guztien eskubide subjektibo eta unibertsala jarraian aipatuko ditugun errekurtsioez baliatzeko: "hiritartartasun eskubide" a deritzona. Sustatzaileen hitzetan aipatu eskubideak " izango du tutoretza judiziala eta epaitegietan exijitu ahal izango da". Lege horrek izan nahi du "ongizate Estatuaren laugarren zutabea, horretarako orain arte osakidetzak, hezkuntzak, eta pentsioek duten maila berean jarriko du gizarte-zerbitzuetarako lorpidea. Legearekin lortu nahi den helburua hiritarren "autonomia eta bete-beteko gizarteratzea sustatzea" eta "asmo unibertsala" moduan aurkezten da. Asmo horri jarraituz, EAEko edozein pertsonak bere bizitza zehar horrelako zerbitzuren bat behar izanez gero, laguntza edo gizarte-zerbitzu horietaz baliatu ahal izango da. Legearen erantzuleen hitzetan, legeak era eta jatorri askotako beharrak bete nahi ditu: babesik gabeko haurren, genero-indarkeria jasaten duten emakumeen, menpekotasuna dutenen edo ezgaituen, familia edo bikote egoera larrian daudenen, eta abarren beharrak betetzeko. Lerro hauek idatzi bitartean kontsultatu ahal izan dugun legearen aurreproiektuaren atzetik dagoen izpiritua islatzen da jarraian<sup>21</sup>:

---

<sup>21</sup> Gizarte Zerbitzuetarako Aurreproiektu-legea. Eusko Jaurlaritza, Euskadiko Udalen Elkarte eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiru lurralde historikoen Foru Aldundien 2007ko abenduan sinaturiko Erakundeen arteko Akordiotik jaso.

Marko berri honen elementu zentrala, gizarte-zerbitzueta-rako eskubide subjektiboaren aitortpena da, hiritartasun eskubidea eratu. Eskubide subjektibo horretaz baliatu ahal izateak esan nahi du, derrigorrean, Eusko Gizarte Zerbitzu Sistema eraikitzea, zeina Ongizate Estatuaren benetako zutabe izango den, biztanleria osoarentzat zuzendutako erantzukizun publiko eta estaldura unibertsaleko sistema bihurtuz.

Aurre egin behar zaien egoeren izaera gero eta konplexuago eta anitzagoa da. Beraz, beharrezkoa da hirugarren sektorearekin batera, laguntza-ezformaleen sarearen funtsa dena, gehiagotan lan egitea, kalteturiko pertsonen partaidetza antolatua sustatzea, sistemen arteko elkarlanean aritzeko guneak eraikitzea (sozio-sanitarioa, soziojudiziala, soziokulturala eta beste batzuk) eta bete-beteko hiritartasunerako lorpideak ahalbidetzen duen politika soziala garatzea, justizia soziala sustatzea eta bazterkeriaren egiturazko kausez arduratzea.

Garrantzitsua da ez ahaztea Sistema eraiki eta artikulatzeko hiritartasunaren eskubideak ez direla lotzen zenbait gizarte-zerbitzu emateari bakarrik, baizik eta kontuan hartu behar da desberdintasun eskubidea. Hala ere, ereduaren muina berdintasun eta ekitate printzipioak izango dira, horrela Sistemarako lorpidea inolako bazterkeriarik gabe bermatzen da, eta, aldi berean, ikuspegi anitzak ere bai –generokoak, kulturantzekoak, belaunaldiartekoak, guztientzako eskuragarritasunekoak, gizonentzako eta emakumeentzako diseinuetakoak–, ekintza positibo, aukera eta tratu-berdintasun neurriak ere kalteu barik.

Hemen ez dugu aztertuko gizarte-zerbitzu lege berri horren garrantzia. Hurrengo lan baterako utziko dugu lan hori, ezen orain urrundu ginatekeen hemen jarri ditugun helburuetatik, baina lege horren atzean dauden “zioak” oso adibide garbia dira hiritartasunari buruzko debatean eman den aldaketaz ohartzeko. Hiritartasunari buruz aktiboa dela esaten da, eta bere kideak subjektu sozial aktiboak direla esparru publikoan. Hiritartasun partaidetza zenbait gai konkreturi lotzen zaie eta honela hiritarren interesak “piztea” lortzen da esparru publikoan agertzeko. Beraz, beren partaidetza ez da egonkorra, baizik eta interes batzuen araberakoa denez, oso eraginkorra da. Interes horiek ez dira, derrigorrean, beraienak, pribatuak edo norberarenak, baizik eta instantzia batzuetan sustatzen den hiritartasun horren interes komunak izan beharko lukeenaren isla dira. Pentsa dezagun talde kontserbadore ba-

tzuek familia eta hezkuntza bezalako gai konkretuen inguruan antolatzeko mobilizazioez. Edo kontuan hartu behar dira debate irekiak, agente arduradunen koordinazio eta elkarerantzukizunari esker "pribatuaren kaiola" apurtu eta esparru publikora ateratzea lortu duten gaiak buruzkoak, hain zuzen ere. Genero-indarkeriaren kontrako politikak, menpekotasun legea, gizarte-zerbitzuen legea, eta abar dira esaten ari garenaren adibide konkretuak. Tabakoaren kontrako legea ere bada beste bat. Ez dugu gutxietsi behar hiritarren sareen balioa eta gai konkretu batzuen inguruan batzeko duten gaitasuna. Zaila bada ere, hasi da begiztatzen bere ekintzaren ondorioak mobilizatzea erabakitzen dutenean gai konkretu baten inguruan. Hala ere, egia da hiritartasunaren mobilizazioa pizteko nolabaiteko afektatua izatea edo bizitzan zehar izateko ustea edukitzea arrazoirik garrantzitsuena dela. Horrexegatik da hain zaila gizartearen interes gehienak batzea gai konkretu baten inguruan, batez ere, gai hori pribilegiatua den gehiengo batentzat problema ez denean.

Zentzu horretan gizarteko sareen papera ezin garrantzitsuagoa da. Politika publikoetan esku-hartzeko erakundeek eta gizarte-ekimen erakundeek duten protagonismoa oso handia da, eta horrexegatik ez dira gutxi helburu sozial horiek garatu eta betetzeko beren gainean duten ardura gehiegizkoa dela salatzen dutenak; politika horietan ematen zaizkien eginbeharrak eta funtzioak betetzeko ez dutela behar besteko heldutasuna diote zenbaitek, edo ohartarazten digute zein arriskutsua izan daitekeen administrazioaren "alde betearazlea" izatea gizarte gaitetako material. Ohar horiei esker jabetu gara Hirugarren Sektorea definitu behar dela eta haien artean koordinatzeko sareak ireki behar direla, hala ere, ez diogu garrantzia kendu behar funtsezko gauza bati, gure ustez, beharrezkoa dena, eta sareek erantzun gabe utzi ezin duten erronka argitzeko

Duda gabe, hiritartasuna aktiboaren jarduteko esparrua gizarteko sareak dira. Era berean, sare horiek dira (izan behar dute) ardatz aktiboak gure gizarteetan sortzen ari diren gizarte larritasunak zedarrizteko, eta gizarte "larritasun" horiek orain indarrean dagoen gizarte-babeserako sistema publikotik kanpo daude. Hau da, alde aurretik usten diren bete beharreko behar zerrendatik kanpo daude, edo bermatu behar diren eskubide zerrendatik kanpo. Horren gainean zertxobait gehiagoz arituko gara Koaderno honetako azken atalean.

Hemen eta orain aurreratu dugun gizarteko sareei buruzko ideia hori izan da azpimarratzeko gizarteko sareen erantzukizunari dagokion delako ez "behar normatiboak" asetzea bakarrik, baizik eta gure gizarteetan dauden urrakortasun arriskuak identifikatzeko bideak zabaltzea ere badagokiela. Era berean, gizarte-babesetik kanpo dauden talde kal-

tetuenen laguntza eta esku-hartzeko eskaerei erantzuna emateko ardu-  
ra ere badute. Zerbitzu horiek oso zabalak izan arren, ez dugu ahaztu  
behar norbait beti geratzen dela kanpoan. Sare horiek duten balioa  
beraiek duten eraldatzeko gaitasunean datza. Eraldatzeko gaitasun  
horrek gauza asko behar ditu. Lehenengoz, Hirugarren Sektorearen  
funtzioak zeintzuk diren argitu behar da. Motibazioa, agregazioa, saren  
lan egitea, ekintza koordinatu eta eraginkorrak, eta argipena ere behar  
dira. Azkenik, gaitasun hori bizirik mantendu ahal izateko Administra-  
zioak lan hori aitortzea beharrezkoa da. Ez dugu gutxietsi behar eralda-  
tzeko gaitasun hori. Nahiz eta berari esker bakarrik ez izan, gaitasun  
horren bitartez lor daiteke pertsonen hiritartasuneranzko lehenengo pau-  
sua: aitorpena.

### II.3. Hiritartasun aktiboa, inklusiboa ote?

Bazterkeriaren aurpegia ez dela aurpegi estatikoa, baizik eta dinami-  
koa dela esaten denean, adierazpen horren atzean dagoen ideia hau da:  
gure gizarteek eboluzionatzen dute, oso erritmo bizian aldatzen dira.  
Hiritartasunak ere eboluzionatzen du, gero eta eskubide gehiago aitort-  
zen dira, beren beharren norainokoa eta komunitatean parte hartzeko  
erantzukizuna zehatzen dira. Gure gizarteak gero eta gizarte malguago-  
ak eta dinamikagoak dira. Gizarte inklusiboak dira edo izan nahi dute.  
Añonek gogorarazten duen bezala<sup>22</sup>, Gizarte batean inklusio testa lo-  
tzen zaio gizartearen kide guztiei gero eta eskubide gehiago aitortzeari  
berdintasun baldintzetan. Garrantzitsuena ez da, dena den, jakitea zen-  
bat eta nola zabaltzen ari den hiritartasuna gure gizarteetan. Hiritarta-  
suna zabaltze hori bakarrik ez dugu txalokatu behar. Ahalbidetu diguna  
(bazterkeriaren zenbait esparru gainditzea) kontuan hartzeaz gain, ez  
dugu ahaztu behar ahalbidetu ez diguna (bazterkeriaren egiturazko fak-  
toreak gainditzea).

Gogoratu behar dugu test horrek neurtzen duena dela bazterkeria  
eragiten duten gizarteen "inklusio" maila, eta gizarte horietan "inklu-  
sio" termino horrek biltzen duena gauzatzea ez dela erreza. Onar deza-  
gun logika liberal ekonomikoak, bizitza sozialeko esparru desberdinetan  
agertzen dena, eragozten du integrazio maila hori lortzea. Beharbada  
garai hauek garai onak dira eskubideak aitortzeko. Hala ere, erronka da  
lortutako eskubide horiek guztiak zabaltzea horietaz baliatzerik ez

<sup>22</sup> Añón, M.J. (2000) "El test de la inclusión. Los derechos sociales", Askoren artean.  
(A.Antón ed.), *Trabajo, derechos sociales y globalización*. Bartzelona: Icaria.



du ten gizarteko pertsona guztiei<sup>23</sup>, hau da, oraindik nola izendatu ez dakigun guztiei. Ez dute hitzik. Izena ere ez: desjabetuak dira, pobre berriak, abantailgabetuak, zaurkorrak, urrakorrek. Luzaroko langabe-tuak, gabezia handienez direnak eta elkarri laguntza emateko modurik ez dutenak. Edozein gizartek zokoratu (baztertu) ahal ditu ez-subjektu horiek, balio ez dute-eta.

Hiritartasun inklusiboaren eredu hori “hiritartasun eskubidean” oinarritzen da. Hala eta guztiz ere, gauza bat da, eredu hori, testu normatiboetan jaso eta artikulatu egiten den eredia eta praktikan jartzeko laguntza handiak dituen, hain zuzen ere, eta beste gauza bat da errealitatea. Biak, eredia eta errealitatea, ez dira lotzen “baldintzaren logika”<sup>24</sup> duen berezko eta aldaezinezko izaeragatik. Oraindik goizegi da berme-tresna horien eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko eta ereduak errealitatean duen eraginkortasuna ikusteko, baina aurretik historia luzea dugu, eta adibidez beterikoa, erakusteko zenbat zailtasun izan diren unibertsalismo borondatea eta irrika gauzatzeko. Testu legalen unibertsalismo formala eta ustezko inpartzialtasunaren atzetik –ez dugu ahaztu behar– oraindik badute ezkutuzko menderapen egiturak, balio dutenak batzuk gizarteratzeko eta beste batzuk ez, eta batzuei hiritartasuna emateko eta beste batzuei ez. Hiritartasuna ongi soziala da eta lortzeko gizartearen taldeek ahalegin handiak egin behar izan dituzte. Hiritartasunaren lorpena ez da izan Marshallék ikusi nahi izan zuen bezain lineala eta erraza. Oztoporik handienak gizarteko talde menperatzaileen eskutik etorri dira, talde menperatuak eta zaurkorrenek eskubideak lortzearen kontrakoak baitziren. Elkarrekintzak, lankidetzaren solidarioa, gatazka, eta ea beti borroka irekia izan dira erabili diren ohiko armak hiritartasun kondizioaren “fruituak” lortu ahal izateko.

Ez da beharrezkoa tematzen jarraitu behar: eskubideen aitortpenak eskatzen du lotura eta partaidetza. Eta gure gizarteetan pertsona talde zenbaitek ez dituzte eskubide horiek (eta ez dute eskuratzeko aukera-

---

<sup>23</sup> Javier de Lucas-ek hainbat lan ditu hiritartasun eta bazterkeriari buruz. Horiek erreferentzia ona dira ikusteko inklusioari buruz esaten ari garena eta etorkinei eskubide horiek emateko beharrezkoak ohartzeko. Berak dituen lan askoren artean hemen hurrengoak nabarmendu nahi ditugu: De Lucas Martín, J. (2007). “Integración política, participación y ciudadanía: un balance”, *Entelequia*, znb. 4, or. 271-282. [www.eumed.net/entelequia/pdf/2007/e04a14.pdf](http://www.eumed.net/entelequia/pdf/2007/e04a14.pdf). De Lucas Martín, J. (2006). “La ciudadanía para los inmigrantes: una condición de la Europa democrática y multicultural”, *Eikasía: Revista de Filosofía*, znb. 4, 2006. [www.revistadefilosofia.com/ciudadania.pdf](http://www.revistadefilosofia.com/ciudadania.pdf). De Lucas Martín, J. (2006). “La ciudadanía basada en la residencia y el ejercicio de los derechos políticos de los inmigrantes”. *Cuadernos electrónicos de Filosofía del Derecho*, znb. 13. [www.uv.es/CEFD/13/delucas.pdf](http://www.uv.es/CEFD/13/delucas.pdf).

<sup>24</sup> Baldin a orduan b[a → b]; eta a, orduan b.

rik), hain zuzen ere lotuta ez daudelako eta ez dutelako inolako partaidetza gaitasunik. Inklusioaren diskurtsoak dituen erronketako bat da lortzea hiritartasun kondizio bera ez bihurtzea bazterkeria-faktore. Gure gizartea merkatuak berezkoa duen logikaren arabera mugitzen denez (errentagarritasuna eta lehiakortasuna), Administrazioak eta gizarteko sareek duten erronka oinarritu behar da giza-ondasunen banaketatik baztertu direnengan.

Hiritartasuna, gaur egun, eta azken urteotan izan duen garapena kontuan hartuta, ez da gai formala edo pertenezia lotura bakarrik. Javier de Lucasek<sup>25</sup> gogorazten duen bezala, botere-titulua ere bada. Beraz, hiritartasun aktiboak eta inklusiboak esan nahi duenari buruz eta horretarako behar denari buruz hitz egitea ez da gai hutsala. Gizarte bizitzaren esparru batzuetan sustatzen ari den hiritartasun eredu horretan "inklusio" terminoak benetan zein esanahi duen, zein norainokoa duen jakiteko ezinbesteko gertatzen da horren inguruan debate sakonak antolatzea. Testuinguru horretan bazterkeriaren aurpegiak desberdinak eta aldakorak ere badira. Aurreko epigrafean esaten genuen bezala, gizarte sareei dagokie errealitate horiek ezagutu eta gure gizarteetan ematen diren bazterkeria mota berri horietatik hurbil egotea. Inklusioa lortzea, dudarik gabe, arrakasta soziala da. Hala eta guztiz ere, lorpen konplexua da, gure gizartearen gizarteratzeko neurri biltze bat baino gehiago dena: *enplegua+etxebizitza+hezkuntza*. Hau beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa. Aurretik neurri konkretuak behar dira benetan lehenengoa eta ezinbestekoena den inklusioa errazteko: berdintasuna eskubideetan. Hiritartasun inklusiboa hiritartasun helduaren adierazpena da, testuinguru politiko eta sozial heldu batean ematen dena. Testuinguru horretan politikak ezin dira neutralak izan, justizia sozialaren, askatasunaren eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoaren isla izan behar dute. Era berean, elkartasunaren aldekoa ere ezinbesteko bertute sozial gisa.

#### II.4. **Excursus-a: Hiritartasuna ulertzeko zenbait era desberdin**

Jarraian era laburrean sartuko dugu, excursus gisa, atala ixteko tradizio garrantzitsuenetan "hiritartasun" kontzeptuari buruz egin diren ekarpenak. Ibilbidea didaktikoa izateko asmoarekin egin dugu eta literatura espezializatuan gehien erabiltzen diren kontzeptuen gida izatea besterik ez dugu nahi.

---

<sup>25</sup> De Lucas Martín, J. (2001) "Hacia una ciudadanía europea inclusiva. Su extensión a los inmigrantes". *Revista CIDOB d'afers internacionals*, znb. 53, 64.or: [www.cidob.org/castellano/publicaciones/Afers/53lucas.cfm](http://www.cidob.org/castellano/publicaciones/Afers/53lucas.cfm)

**Hiritartasun errepublikarra:** hiritartasun kontzeptua duen ulertze-ko era hori gizartearen partaidetza eraginkorrean oinarritzen da. Jardue-  
ra politikoa bideratu behar da guztion ongia lortzeko, eta helburu  
honek lehentasuna du bakoitzaren ongiaren aurretik edo gizabanako  
bakoitzak gizartearen ase nahi dituen nahien aurretik. ikuspuntu horretatik  
partaidetza ulertzen da gizarte esparruan era globalean zabaldu  
behar diren interesen betebeharrak gisa. Esate baterako, justizia izatea.  
Ikuspuntu honen problema da nola orekatu esparru publikoko partai-  
detza-prozesu hori gizabanako bakoitzak era legitimoan bilatzen dituen  
nahi partikularrekin.

**Hiritartasun liberala:** hiritartasuna pertsona orori dagokio eskubi-  
de politikoak eta zibilak dituen aldetik. Autonomia pertsonala da ikus-  
puntu horretatik ezaugarri bereizgarriena. Esparru publikoan, askata-  
sun pertsonalak bermatzea da estatuaren betebeharrak. Erabat liberala  
den ikuspuntu batetik (Nozick), partaidetza publikoak interes pribatu-  
en eskubide indibidualen menpe izan behar du (bizitza, askatasun eta bizi-  
tzarako eskubidea). Ikuskera horren mugak (eta kontraesanak) ezagu-  
nak dira oso: desberdintasun materiala ontzat hartzen du, eta hori bide-  
gabeki jasaten dutenek autonomia eta askatasuna garatzea ezinezkoa  
dute. Mutur-muturreko jarrerak ez dute onartzen inolako ekimen publi-  
korik ezartzea aukera-berdintasuna bermatzeko (ekintza positiboa) eta,  
era berean, ez dute onartzen desabantailak ezabatzeko edo gutxitzeko  
neurriak pertsona guztiei autonomia eta askatasuna izateko aukera  
ziurtatzeko. Ikuspuntu horri egin ahal zaion beste kritika bat da eskubi-  
de eta erantzukizunen (betebeharrak) arteko desoreka oso nabarmena  
dela.

**Hiritartasun soziala:** ikuspegi hori saiatzen da bideratzen muturre-  
ko ikuskera liberalaren mugak, eta hiritartasuna aitortzeko kontuan  
hartzen ditu eskubide zibilak eta politikoak ez ezik, eskubide ekonomi-  
ko eta sozialak ere. Ikuspuntu hori defendatzen dute bai liberalismoaren  
barnean berdintasunerako jarrera nabarmena duten ordezkariak (Rawls,  
Dworkin), bai sozialismoaren barnean jarrera liberatuena dutenek. Esta-  
tuak ez ditu askatasun ibilbideak bakarrik bermatu behar, baizik eta hiri-  
tar guztiek eskubide sozial horietaz baliatu ahal izatea ere bermatu eta  
babestu behar du, eta horretarako aukera-berdintasunerako politikak  
sustatu behar ditu. Gauzak horrela, gizarteko partaideak askatasunaz  
eta autonomiaz baliatu ahal dira, baina orain ekitatiboak diren gizarte-  
baldintzetan. Ikuspegi horren puntu ahulak (eta arriskuak) ere ezagunak  
dira: 1/ estatu paternalista eta hiritar adingabetuak, erantzukizunak  
hartzeaz baino eskubideak eskatzeaz arduratzen direnak; eta 2/ zailta-  
sunak ezartzeko zeintzuk diren beharrak asetzeko bermearen exijentzia-  
ren mugak. "Arrisku" horiek, Eskuin Berriak ondo baino hobeto zabal-

du dituen horiek, astiro-astiro berbideratzen ari dira gure gizarteetan. Errepublikanismoaren asmoa, hau da, hiritarren erantzukizunak indartzeko exigentzia eta esparru publikoan partaidetza handiago izatea, gero eta nabariagoak diren emaitzak ematen ari da: horren adibide ona da gizarte eta hiritar erakundeek bultzaturiko ekimenak gero eta protagonismo handiagoa izaten ari direla gure gizarteko giza eta politika-agenda. Gizarte-politiken garapenak agerian uzten du koordinazio handiago Estatuaren erantzunetan, batez ere, inolako duda barik bermatu behar diren aukera eta beharrei loturikoak. Testuinguru honetan bi ardatz hartu dira erakunde publikoek gizarte-ekintzen ekimenak bultzatzeko. Aipaturiko bi ardatzak dira gizarte-bazterkeria eta mendekotasun funtzionala.

**Kulturanitzeko hiritartasuna:** eskatzen du esparru kulturalaren lehenetasuna eta identitate eskubideak aitortzea ezinbesteko elementu hiritartasun kondiziorako. Eta horregatik, indar gehiagoz edo gutxiagoz, ikuspuntu liberalak eta sozialak defendatzen duten "berdintasun politika"ren beharra onartu arren, hemen garrantzia handiago ematen diote "**desberdintasun politika**"ri, (Young) eta desberdina izateko eskubidearen aitopenari. Hiritartasun diferentziatua da gero eta gehiago nagusitzen ari den kontzeptua hurbilketa horren esanahia azaltzeko: hiritartasun malgua eta asimetrikoa, zeini ordezkatzeko eskubide bereziak onartzen zaizkion (adin-talde, nazionalitate, genero, sexu-joera eta abarren arabera), eta kulturanitzeko eskubideen aitopenean gauzatzen den.

**Hiritartasun kosmopolita** (globala) edo Munduko hiritartasuna ere izenekoa. Hiritartasunaren aurreko adierak loturik daude "zerbaiten barnean izate" jakin bati (estatuari, elkarteari, gizarte-taldeari eta abarri). Ikusteko era honek, ordea, ikuspegi kosmopolita hartzen du eta honela, lehengo "zerbaiten barruan izate" hark zentzu desberdinak hartzen ditu (transnazionalitatea). Sustraituriko kosmopolitismo ideia kontuan hartuta, berezkoaren onarpena (gure herrikoa izatea) adierazten du, baina, aldi berean, zabalik dago justizia globalera, zein naziarterako justiziaren alde egiten duen eta GGEEen urratzearen kontra borrokatzen den, batez ere, biztalaria urrakorrenetan (komunitate indigenak). Hiritartasun horri **hiritartasun konplexua** ere deitzen zaio: ikuspegi transnazonaletik eratzen da eta identitate anitzak izatearen aitopena esan nahi du, talde-pertenentziak baieztatuz askatasun eraginkorrean. Honela, ez da adierazten komunitate bakar batekoa izatea, ezta talde etnokultural bakar batekoa ere, baizik eta baieztatzen dena da mundukoa izatea.

# Berdintasuna

Berdintasunari buruzko gure hausnarketa hasi zen bere eskariak zentzua eta zilegitasuna zituen lekuan. Berdintasunari buruzko hausnarketa horrek, beraz, bazterkeriari buruzko oinarritzko auzi batzuk zehaztuz hasi zen.

Zer dela-eta bazterkeriatik berdintasunari begiratu nahi izate hori? Hau idazten ari garenoi zail gertatzen zaigu beste ikuspegi batetik begiratzea. Badakigu anitzak eta demokratikoak diren gure gizarteetan berdintasuna balio ukaezina dela. Ukaezina ez ezik, ez-eztabaidatua den balioa. Eta horrexegatik galtzen da askotan bere eskariaren garrantzia. Nork eskatzen du berdintasuna gure gizarteetan? Berdintasuna ez izategatik askatasuna izatea zail duten pertsonen, hain zuzen ere.

Berdintasun balioa eskatzen da nagusiki desberdintasuna eta bere ondorioak egiaztatzen direnean. Berdintasuna beti neurtzen da eta egiaztatzen da desberdina den zerbaiten edo norbaiten aurrean. Gainera desberdin izate hori merezi gabe eta era injustuan gertatzen da. Horrexegatik doa beti lotuta berdintasun-arrazionamendua eskubide eta askatasun- arrazionamenduekin. Askatasuna berdintasunaren izateko baldintza da. Berdintasunaren edukia, gure gizarteetan guztiok berdintzea justua den hura, eskubideei lotzen zaie. Eta eskubideak lotzen zaizkio pertsonen askatasunari. Subjektuen hiritartasun kondizioa hiru ardatz horietan sostengatzen da.

Berdintasunari buruzko gure ikuspegia bazterkeriatik abiatzen da eta zehazten du bere ibilbide-orria zinez jokoan dagoena hiritartasuna dela kontuan hartuta. Beraz, berdintasun printzipioa da eta izan behar du oinarritzko balioa gure gizarteetan. Eta ez adierazten duenagatik, benetan ahalbidetzen duenagatik baizik.

Lan honen bigarren geralekua berdintasunari buruz esan dugun horretan guztian geldituko da. Eta egingo dugu hori kontuan hartuta orain zabalduko diren edukiak zuzenduta daudela galdera bati erantzuteko: zer behar da berdintasunetik bazterkeriaren kontrako printzipio eraginkorra bihurtzeko? Zein izan behar du bere zabalerak hiritartasun-

eskubideetatik bazterturik daudenek hiritartasun kondizioa eskuratu ahal izateko?

Datozen orrialdeetan azalduko dugun ibilbideak berdintasunak dituen aurpegi desberdinetan gelditzera behartuko gaitu. Gaur egun ibilbide hori ez da behar bezala egin gure gizarteetan. Gaur egun berdintasuna derrigorrezko zeregina da. Egin-gabe dagoen zeregina eta bazterkeria prozesuak gure gizarteetan enkistatzen dituena da. Honela hiritartasuna zeruertza (eskuraezina) bezala agertzen da eta eskubideetatik bazterturik daudenek ezin dute eskuratu inolako eskubide aitorpenik.

Ikus dezagun zeintzuk diren berdintasunaren aurpegi horiek eta zein den beren garrantzia berdintasun eta hiritartasunari buruzko gure hausnarketa honetan.

### III.1. **Berdintasunaren alderdiak**

Berdintasun printzipioari dagokionez, hainbat adiera bereiztea beharrezkoa da: batetik, berdintasuna legearen aurrean, edo berdintasun formala, eta bestetik, egitezko berdintasuna edo berdintasun materiala. Azkenik, berdintasuna legean (legean zehar) edo eskubide berdintasuna: Berdintasunaren hiru alderdi horiek azterketarako ikuspegi zabala irekitzen digute. Jarraian, adiera horietako bakoitzari buruzko azalpen eta balorazio laburra egingo dugu.

#### III.1.1. *Berdintasun formala*

Berdintasun formalak legearen aurrean berdintasun-exijentzia esan nahi du. Exijentzia hori oso konkretuak diren bi eratan gauzatzen da: Lehenik, hiritar guztientzat marko juridiko bera aitortzean, eta bigarrenik, tratu berdineko bermean legeriaren aurrean nahiz zuzenbidea aplikatzean.

Berdintasun formala kontzeptu normatiboa da eta hiru aspektu konkretu biltzen ditu: berdintasuna orokortze gisa, berdintasun prozesala eta tratu berdintasuna. Jarraian labur-labur azalduko dugu aspektu bakoitza.

- *Jeneralizazioa legearen aurrean: berdintasuna lege aurrean jeneralizazio exigentzia gisa.* Legearen aurrean berdintasuna izateak esan nahi du hiritar guztiek arau berberak dituztela eta auzitegi berberenpean daudela. Exijentzia horren atzean dagoena erreza da: legeak bat bera izan behar duela guztientzat, batzuentzako pribilegiarik gabe; edo legea betetzeko justifikatu gabeko salbuespe-

nik ez izatea, edo legearen aurrean ez izatea hiritar batzuek botere gehiago beste batzuek baino.

Arauren izaera abstraktuak bilatzen duena da, hain zuzen ere, beharrezko eta derrigorrezko jeneralizazio hori izan dadin. Horregatik formulatzen dira arau horiek estilo inpersonalean (inor ez, pertsona oro, guztiak) eta unibertsalitate asmoarekin legeak jasotzen dituen supostu guztietara heltzeko. "Ad personam" arauak dira segurtasun juridiko eta legalitate printzipioekin loturikoak. Tratu berdina berdinentzat.

– *Berdintasun prozesala: berdintasuna legearen aurrean erregulartasun-prozeduraren exijentzia gisa.* Termino honekin adierazi nahi da legeak duen berdintasun "funtzional" a arauak aplikatzeko prozeduretan. Prozedura bera dago hiritar guztientzat. Hertsiki loturik dago inpartzialitate eta neutralitate printzipioekin. Eta justiziaz aritzeko hurrengo exijitzen du: pertsonen arteko bereizketak eta desberdintasunak kontuan ez hartzea, baldin eta sisteman bereizleak eta zentzuzkoak ez badira.

– *Tratu berdintasuna: legearen aurrean berdintasuna izatea tratu formal exijentzia gisa,* eta, era berean, berdintasuna berdintze gisa eta berdintasuna desberdintze gisa harturik.

*Formal-tratu berdintasuna berdintze gisa.* Arestian ikusi bezala, jeneraltasun printzipioak esaten du egoera berdinen aurrean, tratamenduak ere berdina izan behar duela legearen aurrean (Tratu berdina berdinentzat). Berdintze printzipioak, aldiz, egoera eta baldintza desberdinen aurrean, baldin eta bereizleak ez badira eskubideak aitortzeko edo praktikan jartzeko, tratamenduak ere berdina izan behar du legearen aurrean (*tratu berdina berdina ez denarentzat, baina juridikoki izan behar dela usten da*). Eta hala, desberdintasun horiek ez dira kontuan hartzen legearen aurrean pertsonak berdintzeko

Hori da, duda gabe, berdintasun formalaren atzean dagoen *bazterkeria* ezaren oinarri-oinarrizko adierazpena. Konstituzio gehienetan, jatorria, arraza, sexua, erlijioa, etnia bezalako aspektuak garrantzi gabeak dira eta desberdintasun hauek legearen aurrean ez dute baztertze egoerarik sortarazi behar. Adibide arrunta: gizonak eta emakumeak ez gara berdinak. Baina "garrantzi gabe" printzipioari eutsiz, sexu bereizketak ez du garrantzirik izan behar legearen aurrean. Tratu berdintzearen adibidea da ezkontza batean ezkontide biei tratu berdintasuna aitortzea.

*Formal-tratu berdintasuna bereizketa gisa.* Legearen aurrean berdintasun exijentzia hori pertsonen eta zirkunstantzia konkretuen (eta garrantzitsuak) elementu arbitrarioa, beti berdina eta bereizi

gabea ez bihurtzeko, zenbait kasutan beharrezkotzat hartzen da antzeko egoeretan tratamendua bereizia ematea. Legearen aurrean berdintasun hori ezin da izan erabateko eta baldintzagabetuko tratu berdintasuna bakarrik, ezen azkenik hutsa eta injustua bihurtzen baita. Hemen, bereizketa printzipio horren bitartez ez baztertzea bilatzen da, horretarako kontuan hartzen dira desberdintasun handiagoak sor ditzakeen errealitatearen egiturazko baldintzak. Era honetan, aitortzen da berdintasun formalaren izaera dinamikoa. Zenbait adibide: lehenengo eta arinen aurkitzen dugun berdintasun mota horretako adibidea da gizarte talde batzuek beren ageriko desabantailak konpentsatzeko berdintzerako tratu egokiagoa ezartzea zenbait neurri publikoak hartuz: emakumeen egoera lan-esparruan, edo etorkinen egoera eskolara joateko adinekoak direnean arazo asko izaten baitituzte eskolara joan ahal izateko heltzen diren herrialdeetan. Tratu desberdintasuna (lan-esparrurako ekintza-positiboko neurriak, osabidezko hezkuntza, eta abar) ez doa berdintasunaren kontra. Askotan, ikusi dugun bezala, beharrezkoa da desberdintasun handiagoak saihesteko. Adibide gehiago: zergak egokitzea zergadunen ahalmen ekonomiko desberdinei. Ahalmen desberdin horrek exijitzen du tratu bereizlea zerga-sistema justu batean.

Berdintasun formalaren ideiak esan nahi duena zera da: “legeak bera izan behar du guztientzat”, hau da, “persona oro berdinak direla legearen aurrean” eta “orok, salbuespen barik, legeak babesteko eskubidea dute”. Adierazpen horietan “oro” hitza nahita azpimarratzen dugu, ezen konstituzio askotan jaso baitago eta aurreko definizioaren atzean dauden zenbait ageriko gai nabarmendu nahi baitugu. Egia da “legea guztientzat bera da” adierazpenak era praktikoan itzultzen duela “isonomia<sup>26</sup>” kontzeptu greziarra eta aldarrikatzen duela izaki guztien berdintasun juridikoa. Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar

---

<sup>26</sup> Nahiz eta gaur egun “legearen aurreko berdintasuna” bezala itzultzen den, *isonomia* kontzeptu hau ezinbesteko oinarria izan zen Greziako polisaren demokrazia garatzeko. Hasiera-hasierako esanahian parte hartze politikoko berdintasun bezala ulertzen zen, eta hiritarrek esparru publikoan erabakiak hartzeko prozesuan parte hartu ahal zutela esan nahi zuen. *Isonomia* kontzeptuari loturik daude beste kontzeptu batzuk bere esanahia gehiago argitzen dutenak. Esanguratsuenak aipatuko ditugu: *isotimia* edo hiritar guztien arteko berdintasuna errespetuan eta ohorean; *isegoria* edo batzar politikoetan hitza erabiltzeko berdintasuna (bere bertsio modernoan lotzen da egiazko informazioa jasotzeko eskubidearekin); *isopoliteia* edo hiritartasuna elkarri ematea, *polisaren* gobernuan eta bizitzeko moduetan bete-betean parte hartzeko berdintasuna adierazteko (hiri bakoitzeko hiritarrek bazuten hiritartasuna eskuratzeko aukera beste hiri batean).



unibertsala bihurtzeko asmo hori orokorregia dela. Honela, ezaugarri hori positiboena diren elementuen adierazpena bihurtu da, baina, aldi berean, bere ahulezien adierazpena ere bada.

Adierazpen hori era abstraktuan hartuta, legearen aurreko berdintasun eskubide horren jabea oso era zabalean eta orokorrean hartzen da. Testu normatiboak bideratuta daude zentzu orokor hori ezartzera. "Guztiak" baliatu ahal dira legearen aurrean eskubide horretaz: "Izaki guztiak...", "pertsona guztiak...". Hasteko esan behar dugu berdintasunaren alderdi jeneralistari garrantzi handia eman zaiola beti, behar bada handiegia. Izan ere, ez dira gutxi izan adiera honi pisua kentzeko beharraz ohartarazi dutenak. Horien uztez, askatasuna unibertsaltasun logiko gisa ulertuta, legearen aurreko jeneralizazioak printzipio horren jabetzari buruzko zenbaki-irizpide baino ez da: arauaren aplikazioaren eremuaz bakarrik hitz egiten du, ez bere edukiaz. Gure ustez, ez da komenigarria berdintasun printzipio hori "justifikatzea" printzipioari bere eraginaren eta hedaduraren garrantzia kenduz. Norbera "oro" horren barruan eta bere edukiaren "barnean" kokaturik badago, jeneralitatea zenbaki-irizpide bezala orduan (komeni zaigunean) bakarrik ikus dezakegu. Baina "oro" horren barruan egon ezean, eta bere eraginetik "kanpo" egonez gero, gaia askoz konplexuagoa da.

Gure iritziz, adierazpen horrekin esaten ari dena eta nabarmendu nahi dena da pertsonen artean desberdintasunak badaudela (azaleko kolorea, sexua, arraza, eta abar.) eta legearen aurrean ez dutela (edo ez luke izan beharko) baliorik. Ez dira (ez lirateke behar izango) funtsezko desberdintasun objektiboa legearen aurrean, eta, beraz, ez lirateke kontuan hartu beharko aitortzeko legearen aurrean tratu berdina jasotzeko eskubidea. Izan ere, aspektu formal honi darion "orokortasun" horrekin legearen aurrean izan daitezkeen balizko lehentasun edo bazterkerietatik babestu nahi da bereziki. Eta bermatu nahi dena da, hain zuzen, pertsona guztiak modu berean legearen menpe jartzea.

Hala ere, nahitako abstrakzio hori anbigua ere badela esan behar da. Batzuetan anbigua apropos: instituzionalizatutako komunitate politiko guztietan "guztiok" terminoa ez zaie lotzen "sabai" juridiko beraren azpian bizi den orori. Esate baterako, inmigrazio politiketan ezinbesteko baldintza oinarriko eskubideetan hiritarren eta egoiliar egonkorren artean berdintasun formalaren bermea dela esaten denean, nola edo hala, berdintasun formalak biltzen duen "guztiok" horrek duen hauskortasuna agerian geratzen da, ezen printzipioz ez baitzaio beti lotzen etorkin talde horri (ezta egonkorrei edo iraun luzekoei ere). Era positiboan adierazita, eskaera horretan eskatzen ari dena da *eskubideak izateko eskubidea* aitortzea *sine qua non* baldintza bezala inmigrazio politiketan, hau da, integrazio politikoko eskubidea, "guztiok"

horren partaide bat gehiago izateko eskubidea, eta, gainera, eskubide zibilak ez ezik, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak izateko eskubideak ere aitortzeak esan nahi duenarekin.

Ez dugu ahaztu behar bere orokortasun hori berdintasun formalaren ezinbesteko ezaugarria dela, baina, era berean, arrisku handia gordezten duen elementua ere badela kontuan hartuz: berdintasun formala, izatez, lehenengo eta funtsezko bazterkeria esparru bihur daiteke (edo jada bihurtu da, zehatzago izatekotan).

**Eskubideak izateko eskubidea** da Hannah Arendtek ezin egokia-go proposatu zuen formula hura berdintasun formalaren ikuskeraren funtsean egon behar den ezaugarria azaltzeko: **baztertua ez izateko eskubidea**. Gureak bezalako gizarte konplexu, kulturantz eta heterogeneoetan, era errazean esatekotan, baztertua ez izateko eskubidea bermatzeko berriro definitu behar da hiritartasun kontzeptua orain arte ulertu dugun bezala ez ulertzeko. Horretaz aritu gara bazterkeriari buruzko aurreko atalean.

Jarrai dezagun. Inmigrazioa aurrez-aurre begiratu behar den fenomeno (ez problema) ematen den gizarteetan beharrezkoa da oso ondo zehaztea hiritartasun inklusiboaren kontzeptua. Berdintasun printzipio horren izpirituaren kontra joan nahi ez badugu, hau da, bazterkeriaren kontrako lehen pausua (eta oso garrantzitsua gainera) bihurtzea nahi ez badugu, beste molalitate batzuk bilatu beharko ditugu hiritartasunera-ko, zeinetan lotura (graduala) legearen aurrean nazionalitatea ez den izango, egoitza egonkorra baizik. Botoa emateko eskubidea aitortzeaz gain, politikan parte hartzeko beste formula batzuek pentsatu beharko dugu eta, berdintasunari loturik, hiritartasuna eskuratzeko beste bide batzuek ere hausnartu beharko dugu. Eta hauxe da, hain zuzen ere, "hiritartasun hitzarmena".

Berorri buruz laster barru hitz egingo dugu berdintasunaren hirugarren alderdiarekin lotura baitauka, hau da, eskubideetan berdintasunarekin, hain zuzen ere. Atal honetan berreskuratuko dugu galdera bat oraingoz aipatu baino ez duguna egingo: bazterturiko pertsonak zertarako behar dute askatasuna? Edo, zertarako behar dute hiritartasuna?

Galdera horrekin hasi aurretik, astiro-astiro berdintasun formalaren hutsuneak agerian uzten duenaz arituko gara. Zalantza gabe, berdintasunak eskatzen duen legearen aurreko aitortpena ezinbesteko baldintza da, baina behin eta berriro errepikatu bezala, ez da nahikoa: gauza bat da legearen aurrean eskubide hori aitortzea, eta beste bat, oso desberdina, eskubide horretaz baliatu ahal izateko baldintza materialak izatea. Gauza bat da "guztiok" horretara deitzea berdintasunaren alde, eta beste bat, erabat desberdina, jakitea zertara deitzen gaituzten: *Guztiok berdinak, baina, zertan berdinak?*

Izan ere, gauza bat da berdintasuna ulertzea hiritar guztientzako estatutu juridiko bera izatearen aitorten gisa, eta oso desberdina den beste bat, birinterpretatzea herritarrek duten benetako egoera sozial kontuan harturik; birinterpretatzea, gainera, benetan eta era eraginkorrean hiritar horiek berdintzeko asmotan. Lehenengoari, ikusi bezala, berdintasun formala deitzen zaio. Bigarrenari: berdintasun materiala.

“Berdintasunak” duen benetako erronka bere “materialitate”an agertzen da, hau da, berdintasuna edo benetako berdintzea ematen ez denean, hori ez izatea merezi gabeko (eta bidegabeko) bazterkeriaren eta desberdintasunen kausa.

### III.1.2. *Berdintasun materiala*

Berdintasun materialaren exijentzia berezko balioa baino gehiago *disbalio* baten adierazpena da: desberdintasun sozial eta ekonomikoen egiaztapena esan nahi du; desberdintasun horiek garrantzitsuak izateaz gainera, merezi gabeak eta injustuak dira. Eta desberdintasun horiek konpentsatzeko beharra ere esan nahi du. Izan ere, bilatzen dena da hiritar guztiak berdinak izatea edo berdintzea pertsonen bete-beteko garapenerako eta bere bete-beteko partaidetzarako esparru ekonomiko, politiko eta sozialean. Berdintasun substantiboa edo material-tratu berdintasunaren izendapenez ere ezagutzen da. Berdintasunaren alderdi hau berdintze printzipioarekin lotzen da.

Esan bezala, berdintasun materialaren exijentzia *disbalio* baten adierazpena da. Exijentzia horretaz esaten da pertsona batzuen eskaera dela: bazterturiko pertsonena edo zaurkotasun pertsonal edo sozial egoeran daudenena, hau da, gizartearen gainontzeko kideen aurrean gutxiagotasun edo desabantaila egoeran dauden pertsonen eskaera. Era berean, alderdi honekin berdintasuna justizia materialarekin lotzen da. Guk azpimarratu nahi duguna zera da: injustiziaren egiaztapenarekin geratzen dela loturik benetan, eta injustiziari aurre egiteko asmoz, ustezko desberdinak diren neurri batzuekin injustizia egoera horiek jasaten dituzten pertsonen laguntzeko. Berdintasun materialaren balioa erabat politikoa den balioa da. Berdintasun formalak adierazten zuen jeneralizazioa exijitzen du, jakina, baina hori mugitzen da gehiago esparru juridikoan politikoan baino, kasu honetan balantza mugitzen da behar den konpromiso politikora. Berdintasun materialak ez du exijitzen inpartzialtasuna bakarrik, justizia material irizpideak ere exijitzen ditu desberdintasunak saihesteko edo aurre egiteko, era eraginkorrean, berdintasunaz aritzea oztopatzen duten injustiziei. Era positiboan adieraztekotan, ekintzak eta neurriak behar dira pertsonaren bete-beteko garapenerako beharrezkoak diren baliabide materialak bermatzeko.

Berdintasun materiala lotzen zaio eskubide talde bati: pertsona bakoitzaren bizitzaren oinarriko helburuak garatzeko behar diren ondasun substantiboak lortzeko bideak ematen dituzten eskubideei (gizarte eskubideak izenekoak): osasuna, hezkuntza, lana,... partaidetza eskubide hauek dira askatasun individual eskubidearen izateko baldintza, eta adierazpen horrekin hurrengo aspektua azpimarratu nahi da: nekez baliatu ahal izango gara gure askatasunaz horretarako baldintza errealak eta eraginkorrak izan ezean.

Honela, berdintasun materiala adierazle garrantzitsua bihur daiteke berdintasun formalaren eraginkortasuna errealitatea ote den egiaztatze-ko desberdintasunen berdintzearen eta konpentsazioaren exigentzia horren adierazle. Berdintasun materialaren helburua ez da desberdintasunak desagertzea, baizik eta desberdintasun hauek sor ditzakeen ondorioak eta pertsonengan duten "inpaktua" saihestu, zuzendu eta konpentsatzea. Era berean, beraren bitartez berdintasun formalak adierazten duen "guztiak" orokor horri jarri ahal zaio aurpegia, eta berau ez du egiten, pertsona konkretuen aurpegiari begiratu, baizik eta pertsona horiek dagozkien kolektibo edo taldeen "aurpegi"ari begiratu. Esan ditugun arrazoi guzti horiengatik, berdintasun materiala tresna baliagarri eta beharrezko hartzen da gure gizarteetan desberdintasunak gainditzeko.

Dena den, helburua ez da gainditzea bakarrik. Komenigarria da pentsatzea horiek sortzen dituen errealitatearen egituren aldaketaren beharraz. Eta hemen aurkitzen dute berdintasun formalaren eta materialaren ibilbideek bide komun emankorra: berdintasun materiala eraldaketarako tresna eraginkorra izan daiteke zerbait materiala gauzatzea lortzen badu, hau da, baldin eta pertsonengan inpaktu eraginkorra, benetakoa eta egitezkoa lortzen badu.

Berdintasunaren alderdi biak tresna baliagarriak dira eraldakuntzarako, horrexegatik da garrantzitsua biak batzea errazten dituzten neurri guztiak erabiltzea, oinarriko eskubideak aitortzeko eta beraietaz balio ahal izateko.

Ohikoa izaten da berdintasun materialaren ondoan elementu kritiko bat jartzea. Baina hori ez da egiten berdintasun materialak sustatzen duen aukera-berdintasuna zalantzan jartzeko, baizik eta gehiago zehazteko zeintzuk diren bermatu behar diren ondasun material horiek (oinarriko beharrak bezala adierazita). Zein da irizpidea erabakitzeke zein behar bete behar den eta zein ez? Horri buruz asko eta asko idatzi da. Argudio sendoenak justizia banatzailearen aldeko ordezkariengandik etorri dira. Eta, nola edo hala laburbiltzekotan, lau direla esan ahal dugu: erabilgarritasuna eta pertsonen ahalik eta ongizate maila handien lortzea; patuaren zuzenketa; menderatze eza; eta hiritartasun inklusiboa

**Erabilgarritasun argudioa:** nagusiki teori hori utilitaristek garatu dute. Argudio horrek erabilgarritasuna eta gizartearen kideen ongizatea maximizatu behar direla defendatzen du. Justizia banatzailearen aldeko ahaleginik sendoena jarraiko ideian datza: "erabilpen marjinal beherakorra". Irizpide hori pertsonarteko konparaketak ezartzean datza: pertsonen egoera konparatu ahal dira duten ongizateari begiratuz. Garai batean ideia hori askotan erabili zen zerga progresiboak justifikatzeko, baina gaur egun nabarmen atzera egin du dituen zailtasun tekniko eta etikoak direla kausa: objektiboki ezinezkoa da zehatz-mehatz jakitea zein den pertsonen ongizate maila edo neurtzea zenbat erabilgarritasun-maila irabazi edo galtzen den martxan jartzen diren gizarte ekimenekin.

Jakina denez, utilitarismoak duen bertuterik handienetakoa da sen onarekin duen lotura eta ondorioekiko atxikimendua, hau da, ekintzei buruzko irizpide etikoa da ekintzek duten ondorioak baloratzea. Horrek eskatzen du galdetzea gure ekintzek duten inpaktuari buruz. Era berean, bizi garen inguruan erabaki politikoek ere badute eragina eta ez dute berez ona izan behar. Ikuspegi moral horrek hartzen duen ikuskerak etikoa da erabaki horiek pertsonengan izan ditzakeen ondorio onuragarriak edo kaltegarriak, horrexegatik exijitzen ditu probak pertsonen bizitza hobetzen den edo okerrera doan egiaztatzeko. Utilitarismoaren arazoa da ahulezia etikoak saihesteko eta hedonismo gordinean ez jaus-teko bere argudioaren funtsa ongizate ideian eta lehentasunak asetzen jarri duela. Gure ongizate maila handitzen da nahi duguna lortzen dugunean, eta ongizate maila galtzen dugu nahi duguna lortzen ez dugunean. Ikuspegi hori oso kritikatu izan da eta justiziari buruzko teoria asko bere kontra kokatu dira nabarmen. Teoria horiek agerian utzi dute etikaren ikuspuntutik funtsik gabeko argudioa dela ongizatea justizia-arau bezala jarri nahi izatea .

**Patuaren zuzenketaren argudioa:** ikuspegi honen irizpideak askatasunean eta erantzukizun pertsonalean oinarritzen da. Igualitarismo liberala (Rawls eta Dworkin) deritzona da gehien garatu duena. Utilitarismo eta liberalismo erradikalenaren aurrean (neoliberalismoa, edo aurreko atalean "eskuin berria" izendapenarekin ezagutu duguna), pentsamendu korrante hori saiatzeko adosten askatasun indibidualen defentsa eta justizia banatzailearen berdintasun exijentziak. Izan ere, ikuspegi horren arabera zilegi da errespetatzea pertsona bakoitzak bere bizitza antolatzekeo dituen era desberdinak eta horrela egiteko ontzat hartzen dituen irizpideak. Dena den, hurrengo ere gehitzen du: askatasun horrek ez du sortu behar beste pertsona batzuek bizitza pobreegi eraman behar izatea baliabideak eskuratzeko zailtasunak dituztelako. Baliabideak beharrezkoak dira askatasuna garatzeko. Baliabide material

horiek gabe, askatasunez jokatzea, pertsonen autodeterminazioaren aukera ahultzen da oso. Argudio horrek patuaren zoritxarreko eraginak zuzentzea beharrezkoa dela baieztatzen du.

Patuak ez du baldintzatzen gure gaitasunen garapena bakarrik, bai-zik eta hori lortzeko behar diren gizarte-aukerak ere baldintzatzen ditu. Guk ditugun lorpen sozial eta ekonomiko asko lotuta daude patuak emandakoa garatzeko gaitasunarekin eta hori merezi izateko ezer berezirik egin gabe (jaioterria, familia, adimen gaitasuna, berezko trebetasunak, eta abar.). Argudio horrek baieztatzen du patuaren eragin sozialak pairatzea injustua dela. Patua ezin da banatu. Bere onurak, ordea, bai. Patua aldekoa edo kontrakoa izan daiteke. Baina ezin da lotu meritua-rekin, *Libertarismoaren* ordezkari batzuek (Nozick) dioten bezala. Patua da daukazun edo ez daukazun zerbait, baina ez da merezi duzun zerbait. Horrexegatik ez du izan behar pertsonak garatu ahal izateko baldintza. Patuak guztiok daukagun zerbait izan beharko luke, eta ez luke batzuk pribilegiatu beharko eta beste batzuk ez. Argudio horrek esaten du patuaren zuzenketak hiru baldintza bakarrik eskatzen dituela:

- Berdintasunak egon behar du loturik pertsonen bizitzarako beharrezkoak diren ondasun materialen banaketarekin.
- Abantaila naturalak dituzten pertsoneri ez zaie jarri behar trabarik beren gaitasunak nahi duten lekurantz garatzeko.
- Patuaren onurak banatu behar dira guztiok irabazteko irizpideak erabiliz.

Argudio horren arazoa da jakitea zein irizpide erabili behar diren patu soziala eta naturala konpentsatzeko. Horretarako Rawlsek aukera berdintasunaren irizpidea proposatzen du, eta Dworkinek berdintasunaren irizpidea.

**Menderatze ezaren argudioa:** Errepublikanismoaren ordezkarien ikuspegitik berdintasunari buruzko debatearen funtsa da berdintasunak menderatzearekin duen erlazioa ikustea. Ez da justua bizitza duina eta kalitatezkoa garatzeko lortu behar diren oinarritzko beharrak lortu ezin izatea; edo pertsona batzuek ongizate maila handiagoak lortzea eta beste batzuek ez. Injustua dena ez da patua sozialak edo naturalak zoria banatzea era desberdinean batzuen eta beste batzuen artean. Benetan garrantzitsuena da aztertzea zeintzuk diren injustizia horien egiturazko kausak eta zeintzuk diren horien atzean beti dauden menderatze baldintzak. Gizarte desberdinetan eta bazterkorretan beharrezkoa da berdintasun politikak menderatze baldintzak horiek -nahiz eta agerian ez izan, azpian beti daude era ezkutuan edo- ezabatzeko estrategiak planteatzea. Azken urteetan inpartzialitate, berdintze eta bereizle itxurapean nagusitzen joan den hiritartasun eredu sistema menderatzaileen

ebidentzia baino ez da, hau da, botere gehien duten talde sozial, kultural eta ekonomikoena, hain zuzen ere.

Ezinbestekoa da bazterkeriak errotik ateratzea eta menderatzeak konpentsatzea. Horretarako beharrezkoa da politikak eskubide batzuk onartzea, desberdintasunak errespetatuz desberdintasuna konpentsatzeko. Argudio horrek azpimarratzen du independentzia eta autonomia pertsonalak loturik daudela gure gizarteetan menderatze ezarekin, eta auresuposatzen du independentzia sozioekonomikoa. Baldintza sozialak, kulturalak, politikak eta ingurumenekoak ere desberdinak izan daitezke leku batetik bestera. Horrek, duda gabe, gizartearen ezaugarriak eta profila baldintzatzen ditu. Baina gizartearen kideak dituzten bizi-baldintzari buruzko elementu komun bat dago: bizirauteko behar den gutxienekoak ezartzen duen muga. Marra horren azpitik ezinezkoa da garatzea eta mantentzea oinarritzko maila bat independentzia pertsonalari dagokionez: analfabetismo funtzionala, informazio falta edo elkar-tegintza faltagatik gizartearen kideak gizarte urrakortasun egoeran geratzen dira eta era honetan errazten da beste talde menperatzaile batzuk, lehen baino botereitsuagoak, agertzea.

Urrakortasunak eta prekaritate ekonomiko-sozialak eskubide indibidualak ahultzen dituzte. Menpekotasun ekonomiko-sozialak oso urrakor egiten du pertsona eta oso egoera hauskorrean kokatzen du gairontzekoekiko menpekotasuna indartuz. Ildo horretatik garrantzi gehien izan duen proposamena izan da Walzerrena. Ongien eta justiziarren bere teoria errepublikanistotik hurbil kokatzen da

Walzerren ustez, ongiak (bere iritziz, gizarteko baliabideak direnak: dirua, merkantziak, botere politikoa, karguak, lana, denbora librea, hezkuntza, ongizatea, talde bateko kidea izatea, izpiritualtasunerako bidea.... baita maitasuna ere) gizarteko ongiak dira. Ongi horiek historian zehar eraiki den esanahi soziala dute, eta berebiziko garrantzia dute pertsonen bizitzarako. Gizarteko ongi bakoitza lotzen zaio esparru jakin bati, eta esparru jakin horren barruan ezartzen dira irizpide konkretu batzuk aipatu ongi horiek banatzeko. Walzerrek "berdintasun konplexua izendapena erabiltzen du menderatze egoerak saihesteko eta esparru bateko ongiak bidegabeki beste batean ez erabiltzeko erabiltzen diren estrategiak izendatzeko.

**Hiritartasun inklusiboaren argudioa:** aurreko atalean zertxobait aurreratu genuen hiritartasunaren eboluzioari buruz Marshallen *Ciudadania y clase social* liburuan azaldu zuen teoria kontuan hartuta. Horri jarraituz, eskatzen genuen hiritartasun inklusiboaren eredu bat. Gaur egungo joera politiko eta sozial aurrerakorrenek bide horretatik jotzen dute hiritartasun eta gizarteratze politiko eta sozialari dagokionez. Labor bada ere, berriro helduko diogu hiritartasun aktiboaren argudioa-

ri. Argudio horren arabera hiritartasun kondizioa eskuratzea da berdintasun politiken oinarria (horren gainean eraiki beharko lirateke) eta politika horien helburu nagusia oinarrizko eskubideak babestea da.

Hiritartasunaz baliatu ahal izateak ahalbidetzen du definitzea eta eraikitzea hiritartasun desberdinen eskenatoki soziala: politika horietan sartzea aldagaiak eskubide bezala aitortzeko proiektuak, erabakiak eta ekintza pertsonalak martxan jartzeko gaitasuna; erakundeen apustua talde ahulenak, urrakorrenak gero eta autonomoagoak izateko kuantitatiboki eta kualitatiboki, eta gero eta laguntza gutxiago behar izateko; politika konpentsatorioak bazterkeria gainditzeko, aktibazio-neurriak, eta abar, hauek guztiak dira politika publikoen adibideak gizarte berdinaoak eta inklusiboagoak lortzeko asmoa errealitatean nola gauzatu ahal diren ikusteko.

Berdintasun materialari buruzko ibilbide honetan gure asmoa ez da izan ikuspuntu desberdinen kartografia egitea bakarrik. Argudio horietako ezaugarriak bereizienak nabarmentzea ere nahi genuen, eta irakurleak ikusi ahal izan duen bezala politika publikoen lexikoa osatzen dute: horietan hitz egiten da baliabideak eskuragarriagoak egiteaz, gizartearen kideen ongizatea sustatzeaz, hiritarren oinarrizko eskubideak babesteaz, aukerak berdintzeaz, gaitasunen garapen aktiboa sustatzeaz, beharrak betetzeaz, gizarte-zerbitzuak guztientzat eskuragarriak izateaz, hiritartasun eskubideak bermatzeaz, eta abarrez.

Helburu guzti hauek batera hartzen badira (askotan testu normatibo bakar batean agertzen dira), gerta daiteke dispertsio moduko zerbait sentitzea, hala ere ikus daiteke asmo bat: posibleak diren berme guztiak erabiltzea berdintasun formalaren helburuak eta berdintasun materialaren exijentziak adosteko. Izan ere, berdintasunaren alderdi hauek hurbiltzarekin eta lotzarekin nahi dena da oinarrizko eskubideez baliatu ahal izatea lortzea. Horrekin heldu gara berdintasunaren hirugarren erpinera: berdintasuna eskubideetan.

### III.1.3. *Berdintasuna eskubideetan*

Esan bezala, bazterkeriaren aurkako hiritartasun hitzarmen horrek eskubideetan berdintasuna aldarrikatzen du. Memento honetan komenigarria da "berdintasun eskubideetan" adierazpenak zer esan nahi duen ulertzeko hiru kontzeptutan bereiztea. Egingo dugu Bobbiori<sup>27</sup> jarraituz:

---

<sup>27</sup> Bobbio, N. (1993). *Igualdad y libertad*. Bartzelona-Buenos Aires-México: Paidós eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren HEZI, . 75-76.orr.



- *Berdintasun eskubidea*, edo *iure* berdintasuna, erabiltzen da “egitezko berdintasun” ari, edo “berdintasun materiala edo substantzial” ari kontrajartzeko. Orain arte berdintasun formala deitu diogunari lotzen zaio, eta legearen aurrean berdina izatea eta legearen aurrean justifikatu gabeko bazterkeriarik ez izatea esan nahi du.
- *Berdintasuna eskubidetan*: legearen aurrean izan behar den berdintasun hori baino gehiago da. Konstituzionalki proklamaturiko zenbait oinarrizko eskubide aitortzea esan nahi du (ez du esan nahi egitez aitortzen direnik). “Berdintasuna eskubidetan” adierazpena adierazpen zabala da eta konstituzio batean biltzen diren eskubide guztiekin loturik dago. Kasu horretan, *berdintasuna eskubideetan* aldarrikatzen denean, garrantzitsuena da zehaztea zein eskubideri buruz hitz egiten ari garen aldarrikapen unibertsal hori egiten dugunean, nortzuk diren eskubide horien jabeak eta zein berme eskaintzen diren *berdintasuna eskubideetan* benetan lortzeko.
- *Berdintasun juridikoa*: gizarte bateko edozein kidek eduki behar duen berdintasuna subjektu juridiko gisa esan nahi du. Pertsonen gaitasun juridikoaren aitortpena da, eskubide-subjektuak garela aitortzea.

Jarriko dugu adibide bat bereizketa honen luzera ikusteko: gizarte jakin batean bere hiritarrak eskubide-subjektuak izan daitezke, baina horrek ez du esan nahi berdinak direnik legearen aurrean (egon daitezke abantailak batzuentzat bakarrik. Edo beste batzuk baztertu ahal dira legeari dagokionez). Era berean, ez du esan nahi oinarrizko eskubideei dagokienean guzti horiek berdinak direnik ere ( hori gertatuko litzateke oinarrizko eskubide horiek batzuei bakarrik aitortuz gero).

Esan bezala, eskubideetan berdintasuna lotzen zaie zuzen-zunean oinarrizko eskubideei. Eskubide horiei buruzko debatea oso zabala da, eta ikuspegiak ñabardura asko dituzte, horrexegatik ez da erraza esatea zein oinarrizko eskubiderek lotzen den berdintasunaren exijentzia hori. Ohikoa da esatea oinarrizko eskubideak eskubide subjektiboak direla, hau da, pertsonen dagozkien eskubideak pertsonak izateagatik. Hala ere, komenigarria da kontzeptu bi horiek bereizten hastea ikusi ahal izateko bien ez-urrakortasunari buruzko debateak bat egiten dituela proposamen batzuk.

**Oinarrizko eskubideak** dira zuzenbide positiboan jasoak direnak; hau da testu konstituzionaletan sartuta eta positibatuta. Adierazpena eta izpiritua 1789ko Izakiaren eta Hiritarren Eskubideen Adierazpenetik dator eta gaur egun oso ohikoa da bi alderdi bereiztea beren oinarrizko esanahian:

- Bata, objektiboagoa, marko juridiko konkretu eta zehaztu batean Estatu eta hiritarren arteko harreman sistemari lotzen zaio. Marko horrek izen desberdinak hartzen ditu: Zuzenbide Estatu, Zuzenbidezko, Estatu soziala, Zuzenbidezko Estatu Demokratikoa, eta abar.
- Bestea, subjektiboagoa, eskubide subjektiboari lotzen zaie, eta askatasuna egitez bermatzen dute gizabanakoen bizitzaren esparru batean. Horretan datza oinarritzko eskubideen balio subjektiboak.

Jarraian saiatuko gara esaten zertan dautzan eskubide subjektiboak. Horretarako lehenengo definituko dugu zer den eskubide objektiboak.

**Zuzenbide objektiboak** da arau positibo multzo bat sistema juridiko oso bati edo beraren alderdiren bati (penala, merkantila, administratibo) dagokiona. **Eskubide subjektiboak**, ordea, subjektuei dagozkien eskubideak pertsonak izateagatik. "Eskubide subjektibo bat izateak esan nahi du subjektu(ak) bezala egotea egoera batean, zeinetan erreklamatu edo exijitu ahal den bat(zu)engandik edo bat(tzu)en aurrean jakineko jokabide bat (aktiboak edo ez egitezkoak) asetzea, eta bera bete dadin zuzenbide objektiboak ahalbidetua izatea neurri batean"<sup>28</sup>. Eskubide subjektiboak lotzen zaizkio pertsonaren egoera edo posizio juridikoari, eta egoera horiek desberdinak izan daitezke: askatasuna, botere, gaitasuna, *immunitate*, eta abar.

Eskubide subjektiboak loturik dago bera aitortzen duen eta tribunalean aurrean babestea bermatzen duen arau juridikoa behar izatearekin, eta arau-urratze izanez gero, erreklamatu ahal izango dira. Eskubide subjektiboaren babesa juridikoa lotzen zaio bere berme normatiboari. Aurreko atalean aipatu dugu nola zenbait legek norabide berri batera jo duten gizarte zerbitzu materiari dagokionez, ezen hiritarren eskubideak aitortu baitira zerbitzu horiek eskuratzeko eta horietaz balio izateko. Era berean, erakunde publikoek eskubide horiek bermatzeko duten erantzukizuna ere aitortu da.

Orain arte, gizarte zerbitzuetako laguntzak prozedura baten arabera artikulatzen ziren. Prozedura horretan aitortzen zen laguntza eskatzeko eskubidea eta Administrazioaren partetik erantzuna jasotzeko eskubidea. Gaur egungo joera normatiboak beste norabide bat hartu du, ezen ezartzen baititu benetako eskubide subjektiboak laguntza ba-

---

<sup>28</sup> Añón Roig, M.J., eta García Añón, J. (koord.), *Lecciones sobre derechos sociales*. Tirant lo Blanch, Valentzia, 2002, 55-56.orr.

tzuk eskuratzeko. Honela, Gizarte Zerbitzuen<sup>29</sup> katalogoa oinarritzko laguntza horiek zehazteko tresna bihurtu da. Laguntza horiek dira, batetik, hiritarren eskubideak eta, bestetik, administrazioaren beharrak. Administrazioak ezarri behar du aurrekontuetan diru multzo bat behar horiek asetzeko eta legeari atxikitzen zaizkion eskaera guztiei erantzuteko<sup>30</sup>.

Gizarte zerbitzuekin loturiko araudi berri honetaz aritu gara eskubide subjektiboek dagokien bermeetan izan duten eboluzioa azpimarratzeko. Gaur egun egoera hori ez da gertazten oinarritzko eskubideekin. Oinarritzko eskubideen funtzioa, jakina denez, existitzen diren askatasunak bermatzea da. Eskubide horiek izaera unibertsala dute eta adierazten dute botere publikoak zer egin ahal duen eta zer ez.

Luigi Ferrajolik oinarritzko eskubideak jarraiko eran definitu ditu: eskubide subjektiboak era unibertsalean pertsona "guztiei" dagozkien eskubideak dira, pertsona *statusa*, hiritar *statusa* edo jokatzeko gaitasuneko pertsonaren *statusa* duen aldetik. Definizio horri begira, egilearen arabera, "eskubide subjektibo"aren esanahia da arau juridiko batek subjektu bati emandako edozein itxaropen positiboa (laguntzak) edo negatiboa (lesioa). Eta "*statusaren* esanahia da arau positibo batek aurreikusitako subjektu baten egoera, zeinaren arabera pertsonak bere egoera juridikoaren jabea eta/edo egoera juridiko horien egitearen egilea auresuposatzen den<sup>31</sup>. Ferrajoliren ustez, oinarritzko eskubideak dira

---

<sup>29</sup> Gizarte zerbitzuen katalogoak identifikatzen ditu eskubide subjektibo hartzen diren gizarteko laguntzak eta horrexegatik administrazioak bermatu behar ditu derrigorrean. EAEko Gizarte Zerbitzuetarako Aurreproiektu-legea honako laguntza hauek aitortzen ditu: 1) laguntza teknikoek harremanetarako, laguntzeko dimentsioa eduki beharko dute, 2) laguntza ekonomikoak pertsonen gizarteratzea eta autonomia errazteko, gizarteratze prozesuan edo beren menderatze edo babes gabeko egoeratik eratorzen diren beharrak behin-behineko edo era iraunkorrean babesteko, 3) laguntza teknologikoak bideratzen dira horiek erabiltzen dituen pertsonen eta zaintzaileak diren pertsonen autonomia eta gizarteratzea errazteko, horretarako bizi diren ingurua errazagoa egingo da, eta ahal den neurrian, autonomia gabezia duten pertsonen bere ohiko etxebizitzan bizitzen jarrai dezaten ahalbidetuz.

<sup>30</sup> Gogoratu ohi da, Gizarte Zerbitzuetarako lege hauetan aitortzen den eskubide subjektiboa eskubide unibertsal (guztientzako) aitortzen bada ere, laguntza horietarako lortzea eskatzaileak baldintza batzuk (eskatzten duen laguntza motari lotua beti) bete behar ditu. Dena den, kasu horretan izaera unibertsalak esan nahi du aitortzea pertsona guztiek duten eskubidea gizarte zerbitzu horiek eskuratzeko bizitzan zehar behar izanez gero. Esan ohi da hiritar guztiak zerbitzu horien erabiltzailea potentzialak dira, eta orain ematen zaien izaera unibertsala bide horretatik doa.

<sup>31</sup> Ferrajoli, L. (2001). *Los fundamentos de los derechos fundamentales*. Madril: Trotta, 19.or

“beharrezkoak diren eskubide horiek pertsonen balioa betetzeko eta bere berdintasuna gauzatzeko”<sup>32</sup>.

Oinarrizko eskubideak eskubide subjektibo bezala asimilatu diren arren, oinarrizko eskubideari buruzko debateagatik, eta askatasun eskubideak babesteko neurrien falta izateagatik, oinarrizko eskubideak eskubide subjektibo bezala asimilatze horren gainean ñabardura asko egin behar izan direla onartu behar da.

Dena den, bereizketa ez da garrantzitsua berdintasunaren irizpideari dagokionean. Nahiz eskubide subjektibo, nahiz oinarrizko eskubideei lotuz, zenbait proposamen teorikotan ñabardura askorekin edo gutxiagorekin bereizita edo asimilatuak, egia dena da bi eskubide horiek exijentzia bera dutela berdintasunari dagokionez.

Atal hau amaitzen ari gara. Baina ezin dugu amaitu berdintasunari formalari buruz ari ginenean egin genuen galdera hura erantzun gabe. Gaur “hiritartasun hitzarmena” izendapenarekin ezagutzen dugunaren oinarriari buruz hitz egin genuen. Eta jarraiko galdera egin genuen, bazterturiko pertsonak zertarako behar dute berdintasuna eskubideetan, edo zertarako behar dute hiritartasun kondizioa? Berdintasunari buruzko ibilbidea egin ondoren, berreskuratuko dugu galdera hori. Hemendik aurrera eta lan hau bukatu arte, berdintasunari buruzko hausnarketa galdera horren gainean kokatzen saiatuko gara. Horretarako azken ibilbidea proposatuko dugu eta zenbait geldialdi egingo ditugu: lehenengoan, jarraian egingo dugun horretan, ezarriko ditugu berdintasunari aitortzen zaizkion hiru exijentzia. Bigarren momentua probetxatuko dugu adierazteko exijentzia horien mugak. Geldialdi bi horiekin bukatuko dugu berdintasunari buruzko kartografia hau. Eta hirugarren eta azken geldialdia garatuko dugu azken atalean, eta bertan ondorio gisa sartuko dugu gure ustez berdintasunak eduki beharko lukeen “edukia” (sustatu behar den hura: gaitasunak) eta nola egin eraginkor hiritartasuna bazterkeriaren kontra (kohesio handiagoko partaidetzako erak berreskuratuz bazterturik dauden kolektiboekin egindako sare-elkarlanari esker).

### III.2. Berdintasunaren exijentziak

Berdintasun formalak eta berdintasun materialak topo egiten dute berdintasuna aitortzean hiritarren eskubideetan. Berdintasunari buruzko diskurtsoak lehenetsi du berdintasunaren alderdi juridikoa, eta bere

---

<sup>32</sup> Ferrajoli, L. (2001). *Derecho y Razón. Teoría del galantismo penal*. Madrid: Trotta, 908.or

ahuleziak onartu baditu ere, aurreratzen joan da berme eta babes neurriak sartuz, eta horrela astiro-astiro marko normatibo horretatik berdintasun materialaren exijentziak sendotzen joan dira. Eskubideen garapenak, berauen eragina gero eta handiagoa eta duten bermea ere gero eta eraginkorragoa izanik, hiritartasunetik kanpo dauden taldeak inklu-soi prozesu batean sartu direlako irudia ematen du.

Dena den, berdintasunaren gainean oinarritutako eskubideen jeneralizazio horrek debate bat zabaldu du: oso urrakor eta bazterkeria handiko testuinguruetan ea zein eskubideren gainean exijitu behar diren justizia eta berdintasuna. Erantzuna baikorra da: eskubideetan berdintasuna aitortzeak oinarritzko eskubide *guztiak* aitortzea esan nahi du. *Eskubide guztiak guztientzat*. Antza denez, horretan datza berdintasunaren leloa: *Eskubide guztiak guztientzat*: bazterkeriarik eza (eskubideetan berdintzea), berdintasunaz baliatu ahal izateko aukerak, desberdintasunen babesa, eta eraginkortasuna egiaztatzeko bermeak.

### III.2.1. *Bazterkeriarik eza*

Berdintasunaren punturik sendoenak oinarritzko eskubideen babesa eta pertsona guztien berdintzea eskubide horiekiko tratuan. Beraz, pertsonen arteko berdintasuna bermatzeko bideratutako ekintzek, eskubideak aitortzeari eta bermatzeari dagokionez, bazterkeria ezan batu dituzte bere ahalegin guztiak, hain zuzen ere.

Tratu berdinerako neurriek duten helburua da ekintza baztertzailerei aurre egitea. Ekintza horiek sor daitezke justifikatu gabeko tratu desberdina gertatzen denean, eta kaltetua den pertsona-taldeak duen ezaugarriren baten garrantziaren ondorioz (emakumea, atzeritarra, beltza izatea, eta abar). Horri **bazterkeria zuzena** deitzen zaio. Esate baterako, emakumeen eta gizonen arteko tratu berdintasunari buruzko testu normatibo guztiek zentzu horretan hitz egiten dute tratu berdintasunari buruz ari direnean: bazterkeria ezaz, hain zuzen ere. Sexuaren zioagatik, edo sexutik ondorioztatzen diren baldintza jakin batzuegatik (amatasuna, haurdunaldia, eta abar) tratu desberdina ematea zuzeneko bazterkeriatzat jotzen da. Laneko sexu-jazarpenak ere modu berean haritzen da.

**Zeharkako bazterkeria** ere badago, nahiz eta hori hain agerikoa ez izan, eta horrexegatik da antzematen zailagoa. Norbaiten kontrako tratuari lotzen zaio, baina ez zuzenean loturik diskriminatu nahi den ezaugarriarekin edo izaerarekin, baina praktikan egoera horrek adierazten du talde horrekiko tratu baztertzaillea. Lan esparruan erraza da aurkitzea zeharkako bazterkeriaren adibideak: soldata-osagarriak ematean, lana hobetzean, partaidetzarako lorpideetan, eta abar.

Garrantziaren irizpidea, lehen ikusi bezala, tratu bat baztertzaila den ala ez jakiteko irizpide bihurtuko da. Sexua, arraza, jaioterria, etnia et abar bezalako aspektua oso nabariak dira eta horrexegatik desberdintasun horiek "erraz" babestu ahal dira legeen bitartez. Hala ere, egoera jakin batzuetan, etorkinen egoeretan esate baterako, garrantziaren irizpideak zailtasun handiak ditu, eta batzuetan oso zaila da horiek gainditzea. Zailtasun horiek legearen markoan agertzen dira. Eta era agerigarriago esparru publikoan eta pribatuan ere bai.

Bereizketak bazterkeriara daraman gizarte fenomeno da, hain agerikoak ez diren bazterkeria mota horietara, eta legearen aurrean beste bat bada ere, lehen aipatu "guztio" horren beste bat izan arren, egitez "kanpoan" dago edo "ez dago".

### III.2.2. *Aukerak sustatzea*

Lehenik, berdintasunak duen exijentzia behinena, beraz, tratu berdintasuna da. Bigarrenik, aukera berdintasuna; Bobbiok gogorazten digu printzipio honen bistakoa: "era abstraktuan hartuta aukera berdintasunaren printzipioak berez ez dauka ezer berririk: helburu bakar bat lortzeko pertsonen arteko lehia egoerari justizia araua aplikatzea baino ez da"<sup>33</sup>, eta helburua batek bakarrik lortuko du, irabazleak, hain zuzen. Lehiaketa batean partaide guztientzako irteera-baldintzak berdinak izatea bermatzea (distantzia bera, fitxa kopuru bera, joko-arau bera, eta abar) da adierazi nahi duena aukera berdintasunaren kontzeptuak. Zaila gertatzen da karta partida bat irudikatzea jokalaria guztiek ez badute joko-arauak eskatzen duen karta kopuru bera. Hortaz, kasu honetan bermatu behar dena da partidaren hasierako baldintzak dira. Eta baldintza horiek berdinak izatea guztientzat.

Gure gizarteetan aukera berdintasuna bidezkoa eta behin eta berriro exijitzen den eskaera da. Eta horren arrazoia da eskaera lotzen dela lehiaketa zentzu batekin eta lehiaketak izaera *konfliktuala* duela. Izaera *konfliktual* hori, gaur egun, bizitzaren esparru guztietan azaltzen da, eta lehiatzen da oso "urriak" diren ondasun batzuk lortzeko.

Aukeren sustapena lotzen zaio aukera eraginkorrak sortzearen ideiare: aukera eraginkorrak sortu behar dira gizarte lehia horretan guztio parte hartu ahal izateko, eta guztiek parte hartu behar dute exijitzen diren baldintza berdinei jarraituz. Bobbioren hitzetan: aukera berdintasunaren printzipioak, printzipio orokortzat hartuta, esan nahi du

<sup>33</sup> Bobbio, N. (1993). *op. cit.*, 77.or.

gizarte jakin bateko partaide guztiak kokatu behar direla, egoera berdinetatik abiatuta, bizitza-lehian parte hartzeko moduan, edo bizitzeko garrantzitsuena lortzeko moduan egoera berdinetatik abiatuta.<sup>34</sup>

Aukera berdintasuna gure gizarteko printzipio nagusietako bat har du. Hala ere, kontsentsua dago. Hala ere, kontsentsua ez da hain handia printzipioa noraino eraman behar den erabakitzeko orduan. Izan ere, desadostasunak daude berdindu behar dena zer den esateko.

Batzuen ustez, aukera berdintasuna hasi eta bukatzen da bazterkeria eza printzipioarekin: bermatu behar da inor ez baztertua lanean, oinarriko eskubideak eskuratu ahal izateko (hezkuntza, osasuna,...), gizarte bizitzaren baliabideak eta ondasunak eskuratzeko. Izan ere, ikuskera horrek ulertzen du aukera berdintasuna erabat formala den elementu "aisatzaile" bezala. Inori ez zaio ukatzen gizarte lehian parte hartzeko eskubidea bere azalaren koloreagatik, bere sinesmenegatik edo bere jatorri sozialagatik. Aukerek "guztientzat" izan behar dute. Norberaren gaitasuna bakarrik da emaitzetan baztertzen duen elementua.

Ikuspegi atzerakoi horren aurrean, badago beste bat aurrerakoiagoa eta esaten duena bazterkeriaren ezaren berme legala elementu ezinbestekoa dela, baina ez dela, inolako zalantzarik gabe, nahikoa berdintasuna bermatzeko gizarte lehiaren hasierako baldintzetan. Badaude baldintza sozial, ekonomikoak eta kulturalak legearen aurrean berdina izate soila ez izatea nahikoa aukera berdintasuna bermatzeko egiten dutenak. Baldintza sozialengatik, ekonomikoengatik edo kontrolatu ezin dituzte arrazoi batzuegatik (patu naturala edo patu soziala) pertsona batzuk egoera okerragoetan daude eta horrexegatik beharrezkoa da irizpideak ezartzea desberdintasun horiek berdintzeko. Horri aukera berdintasun ekitatiboa deitu zaio. Aurrerago ikusiko dugun bezala, baliabideen banaketa desberdina esan nahi du (ekonomikoak, sozialak, heziketakoak, eta abar) gizarte lehian pertsonen aukerak berdintzeko. Berdintasun aukera ekitatibo politika horien atzean dagoen (gure inguru hurbilenean gehien bat sustatzen diren politikak) irizpidea ez da eraginkortasun irizpidea, baizik eta justizia sozial irizpidea. Irizpide horren arabera patua zuzentzen eta pertsonaren esku ez dauden eta arrakasta edo porrota soziala erabat baldintzatzen duten baldintzak (patu naturalak eta sozialak) konpentsatzen saiatzen da.

Pentsa dezagun baliabide ekonomiko gutxi dituen ikasle bati buruz. Ikuspegi atzerakoitik ikasle horrek hartzen duen mezua da inork ez dio-

---

<sup>34</sup> Ibid., 78.or.

la eragozten karrera bat ikastea, inork ez diola sarrera ixten. Eskubide eta aukera bat da. Aurrerakoiagoa den ikuspegiaren arabera beharrezkoa da patu sozialaren ondorioz sortutako desabantailak (baliabide ekonomikoak ez izatea) beken bitartez konpentsatzea ikasi ahal izateko. Unibertsitateko lehia gazte hori konpentsatuko dute bere ikaskideek dituzten aukerak berak ere izateko. Ematen diote diru-laguntza ikasle bezala hasierako baldintza berdinetan izateko, hau da, gainontzeko ikasleak bezala hasi ahal izateko. Ez diote diru-laguntzarik ematen pobrea izateagatik.

Pentsa dezagun langabezia dagoen pertsona bati buruz. Ikuspegi atzerakoitik jasotzen duen mezua da bera, eta bera bakarrik dela neurri handi batean gertatzen ari zaionaren erantzulea. Aurrerakoiagoa den ikuspegiaren arabera beste aldagai batzuk hatzen dira kontuan aukerak sortzeko lan munduan sartu ahal izateko. Enplegua aktibatzeko neurriak estrategiak dira lan munduan sartzan errazteko, horretarako benetako, hau da, aukera errealak ematen dira.

Berdintasun ekitatiboetarako politikak duten bertutea da zehazten dutela eskaintzen duten aukera, hau da, zehazten dute zertan den eta zer eskatzen duten. Hau ez da garrantzi gabeko zerbait: zehazten dute norentzat den, zein den lortu nahi duen helburua, eta zein den gainditu nahi duten helburua. Horrexegatik, berdintasunaren bigarren exijentzia horrek, aukeren berdintasunak, gehiago zehatzen du berdintasunaren norabidea gure gizarteetan.

### III.2.3. *Desberdintasunen babesa*

Aukera berdintasunarekin loturik agertzen da berdintasunaren hirugarren exijentzia hau. Nahiz eta zeharka egin dugun, zer esan nahi duen adierazi dugu dagoeneko: pertsonen aukerak berdintzeko, batzuetan beharrezkoa da tratu edo banaketa desberdineko neurriak ezartzea.

**Ekintza positiboa** desberdintasun irizpidea erabiltzen duten mekanismo batzuk dira. Aipatu mekanismoak erabiltzen dira gainontzeko pertsonetikiko desabantaila nabarmenean edo bazterkeria egoeran dauden pertsonak edo kolektiboak babesteko. Ekintza horien helburua garbia da: bazterkeria edo desabantaila egoera hori desagertzea, eta honela erraztea benetako aukera berdintasun eraginkorra.

Ekintza positiboaren gainean sortu diren txarto ulertze batzuk desegin behar ditugu. Oso ohikoa izaten da nahastea ekintza positiboaren neurriak babeserako neurriekin edo baztertze positiboko neurriekin. Ez dugu geratu nahi normalean hurbileko kontzeptuak direlako horrekin. Hori beharrean, azpimarratu nahi dugu daukaten esanahi erabat berezia:



Ekintza positiboa ez da **babeserako neurria**. Neurri horien helburua da zirkunstantzia batzuegatik urrakorrak diren kolektiboak babeslea: emakumeak, ezgaitasunen bat duten pertsonak, bazterkeria egoerari izateko arriskuan dauden pertsonak, haurtzarora, eta abar. Horiek guztiak dira "babestu behar diren taldeak" izendapenaren barruan sartzen direnak.

Babeserako ekintza lotzen zaio ikuspegi babesle eta paternalistari. Askotan, ezartzen den kolektiboari dagokienez, izateko arrazoiak menperatze kultura betikortzea baino ez da. Emakumeen kasuan agerikoa da. Babeserako neurri baten adibidea da debekatzea emakumei ahalegin fisikoa eskatzen duten lanak egitea edo gaueko txandetan lan egitea debekatzea. Gaur egun onartu da neurri hauek duten bateraezintasuna tratu berdineko printzipioarekin eta sexuaren zioagatik bazterkeria ezarekin.

Era berean, ohikoa da ekintza positiboa *baztertze positiboarekin* nahastea (*reverse discrimination*). Kasu horretan terminoak oso hurbil daude, baina badaude ñabardura batzuk oso garrantzitsuak direnak, ezen erabat determinatzen baitituzte aukera berdintasunaren politikak eta beren ezarpena berdintasuna lortzeko.

Baztertze positiboko neurriek ageriko desabantailan edo bazterkerian dauden pertsonak edo kolektiboak lehenesten ditu, eta horrek suposatzen du tratu desberdina ematea *hobetsiriko* talde horren barruan sartzen ez direnei eta, beraz, horiek kaltetuak dira. Baztertze positiboko neurriek batzuentzat onurak ekartzen dituzte, baina beste zenbaitetan beste batzuen kalterako neurriak izaten dira. Berdintzea emaitzei begira lortu behar delako ideian oinarrituta dagoenez (sexuaren zioagatik lan bazterkeria, esaterako), neurri hori bera baztertze arrazoiak bihurtzen da beste pertsona eta kolektibo batzuentzat, batez ere, "erabateko lehentasun" neurriak ezartzen direnean. Ekintza positiboko neurriak, aldiz, ez dira saiatzeko (aldintzatzen ere ez) emaitzetan, baizik eta ahalegintzen dira hasierako baldintzak berdintzen, hau da, beren helburua da benetako aukera berdintasuna bermatzea, horretarako eskubideez, "era berean" balio ahal izateko eragozpenak eta zailtasunak ezabatzen dira.

Baztertze positiboko neurriek bilatzen dute emaitza jakin bat lortzea, eta horrek, esate baterako, lan munduari eta emakumei dagokienean, esan nahi du emakumeak kontratatzea gizonek duten ordezkari-tza-kuota berdintzea lortu arte. Ekintza positiboko neurriak, aldiz, saiatzeko dira berdintzen eskuratzeko baldintzei begira. Kasu horretan egingo dute formazioaren bitartez, emakumeak kontratatze-laguntzen bitartez, adiskidantzarako neurrien bitartez, eta abarren bitartez. Ekintza positiboko neurriak dituzten ezinbesteko betekizunak hiru dira:

- *Motibazioa*: pertsona-kolektibo horien justifikatu gabeko bazterkeria edo desabantaila egoera izatea benetan
- *Proporzionaltasuna*: zentuzko oreka izatea hartutako neurriaren eta bilatzen den helburuaren artean.
- *Behin-behinekotasuna*: neurria desagertzea, behin eta berdintasunaren helburua lortuz gero. Ekintza positiboko neurriak behin-behineko neurriak dira.

Honela, bazterkeria eza, berdintzea eta desberdintzea berdintasunaren oinarriak bihurtzen dira. Oinarri horien gainean joan gara justifikatzen eta sendotzen hiritartasunaren berdintze-oinarriak, zeinek berdintasuna eta elkartasuna exijitzen baitituzte pertsonen askatasuna izatearen oinarritzko baldintzak gisa (autonomiarako, autodeterminaziorako eta garapenerako). Oinarri horien gainean ere justifikatzen dira gure gizarteetako justizia eskakizunak

Nahikoak ote dira hiru oinarri horiek bazterkeriaren kontrako lehia garaitzeko? Erantzuteko, lehenengo eta behin, hasierako zehaztapen bat egin behar dugu. Erantzuna baiezkoa da, jakina. Bai, baina hiru oinarri horiek beharrezkoak badira ere, ez dira nahikoak. Eta, behintzat, ez dira, bi arrazoiengatik:

1. gutxiegitakoak dira berez, sostengatzen dituzten argudioek ahaztu ezin ditugun ahulezi batzuk erakusten dituztelako, eta hausnarketa honen arabera azpimarratu beharrekoak direla uste baitugu. Jarraian egingo dugu hurrengo atalean
2. gutxiegitakoak dira gizarte bazterkeriaren aurrean (edo era positiboan esatea nahiago bada, hiritartasun inklusiboaren ideia sendotzeko) ez direlako nahikoak berez.

### III.3. **Berdintasunaren hauskortasuna**

Ezertan hasi aurretik esan behar dugu gure asmoa ez dela atal hau bukatzea berdintasunaren aldeko ekimen publiko batzuen irizpideei buruzko hurbiltze kritikoa eginez. Beste alde batetik, oso erraza litzateke esatea ekimen horiek asmo-adierazpen hutsean geratzeko arriskua dagoela, ez dugu tentazio erraz horretan jausi nahi; ezta hurrengo honetan ere: askatasuna ezartzeko zailtasunak hain dira handiak, ezen gure gizarteetan askatasunaren sustapena arrakastatsua izatea zaila baita.

Asmoak kontrakoa dirudien arren, ekimen horiek egin duten ibilbidea azpimarratu nahi izatea da, eta beren ahaleginen arrakasta aitortzea justiziaren exijentziak politika eta arautegi konkretu batzuetara eraman ahal izategatik. Gaur egun, ekimen horiei esker, testu horietan

bilatzen den “guztionez” berdintasuna eragozten dituzten zailtasunak identifikatu ahal izan dira. Bermatu eta sustatu behar diren gutxieneko eskakizunak dira aipatutakoak: ez izatea inor diskriminatua, “lehia” sozialerako aukera berdinak erraztea esparru guztietan, eta ekintza positiboko neurriak izatea patu soziala eta/edo naturala zuzendu ahal izateko eta honela patu horrek gehien kaltetu dituen pertsonen edukitzea gainontzekoek dituzten abiatzeko baldintza berdinak.

Hala ere, berdintasunaren sustapenean ezarri diren helburuak asko eta anitzak dira, horrexegatik komenigarria da argitzea lortzea espero den helburu horietako ñabardura batzuk. Dokumentu normatibo batzuetan agertzen diren adierazpenak birpasatuz gero, proposatzen diren helburuak oso zabalak eta anbiguoak direla ikusiko dugu, eta horren ondorioz, konpromiso edo asmo hutsak bezala hartzen dira, ezen horiek lortzea proposatutako neurriekin oso zaila baita. Beste alde batetik, gure gizarteetan dauden menderatze sistemak sortzen dituzten desberdintasunak eta bidegabekeriak zuzentzerako bakarrik mugatzen dira aipaturiko helburu horietako batzuk. Horretarako proposatzen dute berdintasun abstraktua, izaera unibertsalekoa eta neutrala (itxuraz), eta arrazoi “zintzo” horienegatik berdintasun eskasa. Saiakera horiek, batzuen ustez, baztertzailerak den balio sistema baten isla baino ez dira. Gutxitan –diote– izaten dute ekimen horiek eragin eraginkorra era askotako menderatze prozesuak eraldatzeko estrategiak planteatzeko. Gehienez, sentikortzen dute. Eta konpentsatzen dute, baina ez dute eraldatzen. Beraz, desberdintasunaren, injustiziaren, bazterkeriaren zirkulua izan daiteke handiagoa edo txikiagoa, baina ardatz beretik dabil biraka eta honela ezinezkoa da menderatzearen dinamika apurtzea<sup>35</sup>.

Barterkeria-egoeretara zuzen begiratzen badugu eta berdintasunaren helburuak nahikoak ote diren galdetzen dugunean, ikusten dugu errealitatea ez dela zuzentzen beharko litzatekeen moduan, eta hori berdintasuna eta justizia sustatu nahi dituzten politikak praktikan jarrita ere. Ikusiko ditugu adibide batzuk eta honela argiago ikusiko dugu nolako zailtasunak dauden berdintasuna balio bat izatetik errealitatea izatera igarotzeko.

---

<sup>35</sup> Kritika horien atzean badaude proposamen jakin batzuk. Horien artean, multikulturalismoa eta komunitarismoa. Feminismoak ere gogor kritikatu du berdintasunaren sustapena, eta korrante aurrerakoiek bultzaturikoak ere kritikatu dute desberdintasun ekonomikoaren, sozialen, kulturalen, eta abarren oinarrian dauden kausak kontuan hartzen ez dituztelako. Zertzelada hauen graperen zehatzago aurki daitezke aipatutako pentsamendu korrante eta mugimendu soziokultural horien ordezkari garrantzitsuenen lanean: Taylor, Ch. (1998). *Los orígenes del yo*. Bartzelona: Paidós. Young, I.M. (1998). *La justicia y la política de la diferencia*. Madril: Cátedra.

*Aukera berdintasunari buruzko zenbait ohar:* ikusi bezala, aukera berdintasunaren oinarria da pertsonen aukeren erabilpena erraztea, eta aukera horien bitartez pertsona bakoitzak bere bizitzaren oinarriak antolatu eta eraiki ditzan. Estatuetan aukera “batzuk” sustatzen dira aukera horiek oinarritzko giza ondasun hartzen direlako. Garrantzitsua da politika publikoek argitzea zergatik hartzen diren oinarritzko sustatzen diren aukera horiek. Oinarriak direla aitortzeak ideologikoki kokatzen ditu politika horiek, ezen beste batzuen ustez neutralak baitira eta estatuaren funtzioak halakoa izan behar baitu. Horrexegatik beren argudioek sendoak izan behar dute: aukerak zerbait gehiago dira lurralde bat garatzeko sozialki desiratutako aukerak baino. Beste helburu personal batzuk lortzeko baliabideak baino zerbait gehiago ere badira. Lehenengo eta behin, sozialki aukera justuak dira, eta horiek gabe pertsona batzuk edo zenbait talde lerratzen dira gure gizarteko “bazterretara”. Estatuaren konpromisoa lotu behar zaio argudio horri. Gure ustez, horri lotuago “hiritartasunaren ongizatea erraztea” defendatzen duen argudioari baino.

Aukera horiek urria den ongi batengatik lehiatzen dituzten aukerak dira. Guztiek ongi horietaz askatasunez gozatzeko aukera izango balute, ez litzateke zentzuzkoa izango aukera berdintasuna aldarrikatzea. Hala ere, aukeren bitartez lortzen diren ongiak oso urriak dira. Auzia konplexuagoa da. Sozialki ongi justuak eta urriak izateaz gainera, elkarririk loturik dauden ongiak ere badira. Eta lortzeko era ez da ustekabekoa: batek ematen duenari esker gainontzekoak errazagoak dira. Jar ditza-gun adibide batzuk: kontuan har dezagun zer dakarren lanpostu bat lortzeak, berez suposatzen duena eta erantsia dakarrena, ondasun materialez gain (auto-estimua, statusa, aitormena, eta abar). Pentsa dezagun kulturaz, eta erantzirik dakarrenaz, denbora librea gozatzear, eta abarrez. Berdintasunaren aldeko konpromisoa inoiz ez da konpromiso neutrala. Justizia sozialaren aldeko konpromisoa izan behar du

Dena den, ez dugu ahaztu behar ongi berdinak lortu nahi dituzten gainontzeko pertsonekin berdintasunean “lehiatu” ahal izateko aukerak direla. Inoiz ez da zalantzan jartzen egin behar duguna lehiatzea dela. Aukera berdintasunak lehia soziala justifikatzen du. Agian, aukera berdintasunari esker lehia soziala ekitatiboa da. Horri esker “fair play” soziala bezala har genezake, hala eta guztiz ere, egitea egokitzen zaiguna lehia delako ideia hori ez da urruntzen. Eszenatoki horretan batzuek irabazten dute, eta beste batzuek, ordea, galdu. Jarrai dezagun eta ikus dezagun zer esan nahi duen muga gainditzeak ala kanpoan geratzeak.

Giza lankidetzarako, giza harremanetan sortzen diren errekurtsioak erabiltzeko (kapital-soziala), justizia eta elkartasun printzipioaren gaine-

an oinarritutako gizarte motak egiteko deiak, horiek guztiak, aurkezten dira konpentsazio sozialaren joko-arauen "alternatiba" bezala. Ekonomia solidarioa, bidezko merkataritza eta banka etikoa beste eredu batzuk dira sistema aldatzeko sistemaren barnean. Proposamen hauen "domino efektua" deritzonak eragin handia izan dezake. Eta, gaurkoz, menperatzearen zirkulua apurtzeko bideragarria den alternatiba bakarra. Horrexegatik oso garrantzitsua da aukerak sortzea "esparru" berri hauetan eta hauei esker ere.

Administrazioari ihes egiten dio sare sozialen sare sendo batek duen balioak gizartea eraldatzeko. "Esparru" horietan hiritartasuna lotzeko modu bat (sarean sartu) da "esparru" horiek sustatzea. Sare hauen egin-behar soziala ez da administrazioaren politika sozialak "gauzatzea". Beren egin-behar soziala ez da laguntzea bakarrik. Beren egin-behar soziala eraldatzea da. Hori egin ahal izateko behar dituzte aukerak. Zergatik ez zaie ematen aipatutako aukera berdintasuna gure gizarteetan justiziaren alde lan egiten duten iniziatibei ere? Esan bezala, menperatze zirkulua apurtzeko era bakarra da lehia sozialaren helburuak ez bezalako beste helburu batzuk dituzten egiturak sortzea. Orduan, zergatik ez sustatu?

Batzuen ustez, proposamena egingaitza izango da. Gizarte aberatsak ez egitearen beldurra ez digu kendu behar gizarte justuak egiteko aukera. Zergatik ez sustatu politika publikotik tratu desberdina ekonomia solidarioari loturiko ekimenentzat ekonomia merkantilarekin berdintzeko? Zergatik ez egokitu aukera berdintasunerako politikak ekimen hauei? Zergatik ez aitortu ekonomia solidarioa, banka etikoa, bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua, eta abar oinarritzko ongi sozialak direla?

Inork ez du zalantzan jartzen aukerak sustatzeko neurri horiek, gizartea egiteko beste era baten aldekoak, behin-behinekoak izan beharko luketela, behintzat esparru ekonomikoetan orain dihardutenekin berdintzea lortu arte. Berdintzea lortu ondoren, ikusi beharko litzateke hiritartasuna zeinekin lotzen den. Gaur egun, aukerak oso gutxi dira. Eta desberdinak ere bai. Eta desberdintasunaren jatorria ez da patua. Kasu honetan irizpide merkantilak ezartzen du desberdintasuna.

Zergatik ez da lagundu behar merkatuaren esparruan jokatzeko beste arau batzuk sartzen, arau horiek langileentzat, kontsumitzaileentzat eta hiritarrentzat aukerak baldin badira? Utz dezagun "ikusezinezko eskuak" emaitzak erakuts ditzan.

Gaur egun administrazioak egiten dituen berdintasunaren eta inklusioaren aldeko ahaleginak goresgarriak dira. Onartu beharra dago. Berdintzeko ahaleginak dira eta "berreskuratze" ahaleginak ere bai. Bazterkeria egoeran dauden pertsonak edo gainontzeekiko desabantaila nabarmenean dauden pertsonak "berreskuratzea" gizarterako.

Dena den, neurri batean, ahalegin horiek kontraesankorrak dira, ezen gizarteratzen baitugu, barneratzen baitugu eta hiritartasuna zabalitzen baitugu bazterkeria sortzen jarraitzen duen gizarte batean. Estatuak bazterkeriaren erantzukizuna hartzen du. Sare sozialak ditu aliatu "lehia sozialaren ondorioen ardura hartzeko". Badira erantzulea izateko beste era batzuk: menderatzearen zirkulua apurtu eta ageriko desabantailan (ekonomikoan bakarrik ez) "lehiatu" baino beste irtenbiderik ez duten ekimenei lagunduz. Lehian aritu, gainera, menderatze egiturak mantendu nahi dituzten botere eremuekin.

# Hiritartasunerako proposamen bi

Zer behar dugu berdintasunetik, bazterkeria ezaz, berdintzeaz eta desberdintzeaz gain, bazterkeriaren kontrako elementu eraginkorra bihurtzeko? Zein estrategiaren bitartez sustatu behar da ematen diogun eraldatzeko funtzio hori sendotzeko? Horiek dira egin genituen lehenengo galderak bazterkeriari buruz, berdintasunari buruz eta hiritartasunari buruz hausnartzen hasi ginenean eta azken atal honetan itxiko ditugunak.

Orduko kezka zen gure hausnarketaren oinarriak ondo sendotzeko gai ote ginen. Asmo hori lotzen da etikari dimentsio praktikoa eman nahi izatearekin. Horrexegatik egin genuen jauzi bat errealitate soziale-ra eta ikuspegi etiko hori errealitateak itzultzen digun saihestezinezko urgentzian haragiztatu nahi izan genuen, eta, hau idazten ari garenon ustez, erantzun gabe ezin genuen utzi. Lanaren lehenengo atalean sartu genuen ibilbide erraz bat bazterkeria zer den azaltzekotan. Hurbiltze kontzeptual horretan ez zegoen inolako asmo intelektualik. Segur aski gizarteko bazterkeriari buruz jada esan eta idatzi denak osatzen eta gehitzen du horren inguruan lan honetan azpimarratu dena. Gure asmoa ez da izan komunitate zientifikorentzat ekarpenik egitea. Hausnarketa honen hasieran egin genuen ibilbide deskriptiboaren helburua zen agerian uztea eta berreskuratzea gizarteko bazterkeriaren ondorioak. Posibleak diren guztien artean beste bat baino ez da, baina bere eragina garrantzitsua iruditzen zitzaigun: bazterkeria egoeran dauden pertsonak hiritartasun kondizioa galtzea, hain zuzen ere. Lan horietan<sup>36</sup>, bitzita publikotiko atzerriratze ezkutua (eta degradatzailea) dela idatzi dugu. Eta atzerriratze hori ez da borondatezkoa, baizik eta bazterkeriaren beraren dinamikak sortzen du eta bazterkeria pairatzen duten pertsonak gizartearen *bazterretara* eramaten ditu. Izan ere, pertsona horiek ez dira kontuan hartzen kontuan hartzeko hiritarrak ez direlako.

---

<sup>36</sup> Sasia, P.M. eta de la Cruz, C. (2008). *op.cit.*

Hausnarketak gure gizarteetan dauden hiritartasun ereduak aztertze-  
ra eraman gaitu. Esparru publikoko partaidetzari buruzko ikuspegi  
desberdinak eta horrek dakartzan eskubide-beharrak aipatu ditugu, eta,  
azkenik, hiritartasuna inklusiboaren ideian gelditu gara: izpirituan eta  
hitzean edozein proposamen politiko gainezkatzen duen ideia hori eta  
gaur egun politika praktikan gutxieneko duintasunez eta zintzotasunez  
aritzeko behar dena.

Dena den, hitzaurrean esaten genuen bezala, hausnarketa horietan  
garatu nahi izan dugun intuizioetako bat da helburuak ez duela izan  
behar gizarte inklusiboagoak lortzea. Jakin badakigu baieztapen honek  
susmoren bat harrotu ahal duela, batez ere oraingo garai hauetan gehi-  
tzea eta inklusioaren gramatika hartzea errazena (eta komenigarriena)  
denean. Modan dagoena da. Saiatu gara tentazio horri aurre egiten. Ez  
dugu besterik gabe onartu nahi eksklusio/inklusio bikotearen inguruan  
artikulatzen diren ekimenek helburu berdinak izatea, eta, beraz, berdin  
izatea bi horietako edozein erabiltzea. Batek ezabatu nahi dena (bazter-  
keria) adierazten du, besteak, lortu nahi dena (inklusioa)<sup>37</sup>. Hala ere,  
badago ñabardura bat garrantzi gabekoa ez dena. Helburua inkluitzea,  
gizarteratzea bakarrik dela onartzen badugu, baztertzeari uztea ezinez-  
koa dela onartuko genuke. Gure proposamenak, erraza eta intuizioetan  
oinarritua, hurrengo helburuari balio izatea nahi du: *baztertzeari utzi*.  
Nola egin dezakegu?

Inklusio politikak bazterkeria pairatzen duten pertsonentzat bidera-  
tuta daude. Horrexegatik dira beharrezkoak. Gaurkoz, horiek kontuan  
ez hartzea zaila da. Baina, gure ustez, beste tresna bat gehiago baino ez  
dira, bide bat bere ondorioei aurre egiteko. Ez dugu bidea helburutzat  
hartu behar. Gizartea eraldatzeari buruz hitz egiten denean, helburu  
nagusiak izan behar du gizarte horrek baztertzeari uztea. Eta ez gizarter-  
ratzea, integratzea, inkluitzea. Hori egiten jarraitu beharko du bazter-  
tzeari utzi ezean. Bitartean, giza bazterkeria politika horien “koartada”  
izango da. Eta sare sozialek, behintzat gure gizarteak eraldatzeko eran-  
tzukizuna hartzen dutenek, aurkitu ahalko dute gorpil zoro horretan ait-  
zakia garrantzitsu bat eginbehar hori atzeratzen jarraitzeko: errealitate-  
ak dio oraindik “laguntzeko” garaia direla, eta ez “eraldatzeko”.

<sup>37</sup> Dena den, ez dugu begibistatik galdu behar menderatze izkutuko zentzua dagoe-  
la integrazio politiko eta sozial horren eskaeran: talde batek erabakitzen du zein baldin-  
tza eman behar diren beste talde bat hiritartasuna eskuratu eta esparru desberdinetan  
parte hartu ahal izateko. Batzuetan, bazterkeriari buruzko diskurtsoek “klausula” bat  
mozorratzen dute eta hori botere-adierazpena baino ez da. Har dezagun kontuan, ohar  
gisa behintzat, inklusioa errazteko neurrien ardura dutenen aurrean.



Lan honen lehenengo atalean zehar saiatu gara intuizio hauek sendotzen. Hausnarketa galdera jakin baterantz zihoan, eta, orduan, berdintasunaren printzipioa beharrezko egiten zen. Hiritartasunaren eredu horrek, ñabardura batekin edo beste, eta dituen edozein ikuspegitan, eskatzen du gizartearen kide guztien askatasunaren hedapena. Hori da bere helburua. Hori lortzeko askatasuna garatzen den testuinguruak baldintza batzuk behar ditu. Oso marko berezia behar da askatasunaren eskakizunak bermatzeko. "Guztien" askatasuna posiblea izango da testuinguru jakin batean, zeinetan "guztiek" gutxieneko berdintasun konpartitua duten. Askatasun indibidualaren eta kolektiboaren ibilbidea berdintasunaren kartografian dago markaturik.

Erabaki genuen gure zeregina ezin zela izan berdintasunaren alderdi guztiek maparen gainean marraztu dituzten lerro guztiak trazatzea. Bestalde, komenigarria zen azaltzea zeintzuk diren gizarte batean berdintasunaren gutxieneko horiek askatasunez jokatzeko.

Lanaren atal garrantzitsuenean horretan aritu gara. Beharbada zati-rik zailena da. Askatasunaren alderdi bakoitzaren ezaugarrietan geratzea justifikaturik zegoen gure ustez. Askatasunaren diskurtsoak ez dauka alde atseginik hizkuntza sozialean. Jakina da berdintasunaren eskakizunek oihartzuna daukatela justizia falta dagoenean. Askatasuna ezinbesteko balioa da. Berdintasuna, ordea, askatasunerako baldintza baino ez da. Berdintasunaren eskakizunak inpartzialitatea, bazterkeria eza, berdintzea, tratu berdina, aukera berdintasuna, eta abar exijitzen ditu. Testuan zehar berdintasun falta justizia falta ere badela esan dugu askotan. Gure gizarteetan kide guztien askatasuna bermatzeko gutxienekoak nagusiki hiru direla adostu dugu, nola edo hala. Hiru horiek dira berdintasunaren atalaren amaieran jorratu ditugunak: bazterkeria eza, berdintzea eta desberdintzea.

Gure lana hor buka zitekeen. Edo, agian, exijentzia horiek testu normatiboetan nola geratu diren azter genezakeen, edo zein neurri edo estrategia diren arrakastatsuenak gero bitzta sozialaren esparru desberdinetan indartzeko. Era berean, "praktika on bat" edo ekakunde-eremu-eremuak datuak beren aplikazioen emaitzekin, eta abar berreskura genitzakeen. Hala ere, aurreko atalean esandakoari zerbait zor genion. Ibilbideak bukatu behar zuen erantzun batekin. Berdintasunaren gutxieneko konpartitu horiek neurri batzuetan gauzatzen dira eta neurri horiek justifikatuak izateaz gainera, ezinbestekoak dira giza bazterkeriari aurre egiteko. Hau, gure ustez, jakina da. Baina, nahikoak ote dira?

Hasierako galderak behin eta berriro datozkigu eta erantzutea saihestezin egiten zaigu, beraz erantzuteko ordua da. Espero dugu honaino heldu denari orain huts ez egitea. Egin dugun bidea da guk behar genuena lana hurrengo hausnarketekin bukatzeko:

- Zer gehiago behar da berdintasunetik bazterkeriaren kontrako printzipio eraginkorra bihurtzeko? Berdintasunaren esparruan gaitasunen sustapena inkluitu behar da, gainera, gainontzeko hiru exijentziek dituzten era eta betekizun berdinekin.
- Berdintasun printzipiotik zein estrategiaren bitartez sustatu behar dira gaitasunak printzipio horri ematen diogun funtzio eraldatzaileak sendotzeko? Hirugarren Sektorea deritzona sendotuz eta lagunduz. Hemen Hirugarren Sektore eraldatzaileari buruz ari gara. Ez dugu hitz egiten Hirugarren Sektore asistentzialari buruz.

#### IV.1. Gaitasunen sustapena

Proposamen honek bilatzen duena da “gizarte bat, zeinetan pertsona bakoitza izango litzatekeen tratatua atentzioa jasotzea merezi izango balu bezala, eta pertsona bakoitza jarriko litzatekeen benetako giza bizi-baldintzetan”<sup>38</sup>

Amartya Seni gaitasunen ikuspegiaren babesle intelektuala izatea aitortu zaio. Bere eragina oihartzun handia izaten ari da ebaluatzeko pertsonen bizitza-kalitate eta pobrezaren kontrako estrategiak. Giza Garapenari buruzko txostenek hartu dituzte Senek bere lanetan proposatu dituen zenbait adierazle. Hemen, ordea, guk defendatzen dugun gaitasunen ikuspegia da Marta Nussbaumek<sup>39</sup> emandakoa, gure ustez oinarritzakoa azpimarratzen duelako: “berme konstituzionalek onartu beharko lukete gaitasunen funtzioa oinarritzako printzipio politiko gisa<sup>40</sup>”. Gaitasunen ikuspegi horrek lortu du gaitasunak lotzea eskubide subjektiboen ikuspegiarekin. Saiatuko gara azaltzen adibide erraz batekin.

Gaitasunen sustapenak eragina du nagusiki pertsona egiteko eta izateko gai den horretan. Pertsonak berak sor ditzakeen baliabideak ez dira hain garrantzitsuak, edo zein ase-maila eduki behar duen edo beren oinarriko beharrak ase dauden. Ikuspegi berri horrek arreta jartzen du pertsonen baliabideekin egin ahal duten horretan. Pentsa dezagun, esate baterako, jubilatu berri den pertsona batengan. Demagun osasun onarekin jubilatu dela eta oraindik bere bizitza-itxaropena luzea dela, eta, ondorioz, aurretik ondo bizitzeko aukera duela. Ez gara luza-

<sup>38</sup> Nussbaum, M. (2002). *Las mujeres y el desarrollo humano*. Bartzelona: Herder, 115. or.

<sup>39</sup> Nussbaum, M. (2006). *Las fronteras de la justicia. Consideraciones sobre la exclusión*. Bartzelona: Paidós.

<sup>40</sup> Nussbaum, M. (2002) . *op.cit.* .112.or.

tuko gehiago adibidearen zehaztapenekin. Goazen harira: pertsona horrentzat denborak orain arte (pertsionala, eta lan-munduari lotua) ez bezalako dimentsioa eta neurria hartzen du. Pertsona horrentzat denbora aukera bihurtzen da. Aukera eta emaitzen arteko ibilbidean dauden eragozpenak gaindiezinak direla esaten dugunean, pentsa dezagun zein eragozpen gaudituz behar dituen jubilatuz berria den horrek 40 urtez, batz bestea, ordutegi jakin bati eta zeregin konkretu bati loturik egon ondoren, eta prestatua izan ez denean oraingo abagunea benetako aukera bihurtzeko, hau da, denbora libreaz gozatzeko. Pertsona hori ez da gai "bere baliabideak askatasuna" bihurtzeko, Senek eta Nussbaumek esango liguketen bezala. Bere proposamena lotzen zaio zailtasun horiek gaudituzko beharrari. Eragozpenak gaindiezinak ez izatea.

Ikuspegi honek agerian uzten dituen zailtasunetariko bat da bazterkeriaren kontrako estrategia batzuek ez dituztela ezagutzen pertsonen dituzten problemak eta eragozpenak gizarteratzeko giza bizitzaren eremu desberdinetan. Horrexegatik ematen dio ikuspegi horrek lehentasuna pertsonen benetako bizitzaren azterketari (beren marko materialetan eta sozialetan). Proposamen horren azpian dagoen argudioa da galdetzea benetan egiteko eta izateko gai denari buruz. Horretarako beharrezkoa da ezartzea "gutxieneko, oinarritzko eta ezinbesteko gaitasun" batzuk pertsonen bete-beteko garapenerako eta galdetzea praktikan jartzeko gai diren ala ez.

Are gehiago: ikuspegi honek galdetzen du pertsona batek egiten duenaz eta egin ahalko lukeenaz. Proposamen horretan aukerak hartzen dute balio eraginkorragoa. Aukerak agertzen dira beste elementu bat gehiago bezala pertsona batek egin ahalko lukeenaren zerbitzupean bere bizitza martxan jartzeko erabat humanoa den era batean.

Azkenik, ikuspegi honek defenditzen du giza funtzionamenduaren gune zentralak izatea. "Ordenamendu politiko publikorako justizia beharrezko baldintza bat da ordenamendu berak ematea hiritarrei gaitasun oinarritzko maila bat. Jendea sistematikoki gutxieneko maila horren azpian badago gune zentral horietako batean, gertaera hau egoera injustu bezala ikusi beharko litzateke"<sup>41</sup>.

Ikuspegi honek ere baditu puntu ahulak. Garrantzitsuenak bi dira. Batetik, zaila da lehentasuna ematea gaitasunei, lehenago beren oinarritzko beharrak bete direla bermatzen ez badira. Honela, badirudi beharrek lehentasuna dutela gaitasunen aurrean balizko sustapen prozesu batean. Bestetik, ikuspegi horrek exijitzen du oinarritzko gaitasunen aur-

---

<sup>41</sup> *Ibidem*.

kibide bat (zerrenda bat<sup>42</sup>) izatea, eta horiek lirateke estatuak hiritarrei erraztu eta bermatu beharko lizkiekeenak.

Lehenago zailtasunari dagokionez, esan behar da bereziketa erabat zentzuzko dela hegoaldeko pobreturiko gizarteetan eta herrialdeetan, eta muturreko pobrezako testuinguruetan ere bai, oinarrizko beharrak asetzeak lehentasuna duelako gaitasunen aurrean. Oinarrizko beharrak asetzeak eskatzen du lehenbiziko betekizuna, derrigorrean betebeharrekoa: pertsona baten gutxieneko bizi-kalitate baldintzak betetzea. Errealitate horren aurrean gaitasunek atzera egin behar dute bigarren une bat arte. Baina gureak bezalako gizarteetan oinarrizko hartzen diren beharrak ez dira substantzialki bereizten oinarrizko gaitasunetatik. Horrexegatik pentsatzen dugu gure testuinguruan beren sustapena justiziaren aliatu ona bihurtzen dela.

## IV.2. Sare sozialen balioa

Bigarren zailtasunarekin zabalduko dugu azken atala. Esaten da gaitasunen ikuspuntuak dituen punturik ahulenetako bat dela irizpideak ezarri behar izatea esan ahal izateko zeintzuk diren Estatuak bermatu beharko lituzkeen oinarrizko gaitasunak. Orrialdearen oinean jaso dugu Marta Nussbammen proposamena, zeina lehenengo hurbilketa bezala har daitekeen estatuaren erantzukizuna baloratzeko oinarrizko gaitasun horien babesari dagokionez.

Lan honetan ez gara sartuko inolako debatean batzuen lehentasunaren aldeko edo beste batzuen aldeko argudioak proposatzeko edo ea beharrezkoa den zerrenda horretan aldagai batzuk kentzea edo gehi-

---

<sup>42</sup> Nussbaumek (2005, 88-89) proposatzen duen oinarrizko gaitasun zerrenda irekia hurrengoa da:

1. *Bizitza*: bizitza normal batek dirauen beste bizi ahal izatea. 2. *Osasun fisikoa*: osasun ona mantendu ahal izatea, ugalkor osasuna barne, elikadura egokia jasotzea, bizitzeko leku egokia izatea. 3. *Integritate fisikoa*: leku batetik bestera mugitu ahal izatea. Erasotik babestea (sexualak eta etxe barrukoa barne). Asetasun sexualerako eta ugaltzeko kuestioetarako aukerak izatea. 4. *Zentzumenak, irudimena eta pentsamenduak*: zentzumenak, irudimena eta adimena (...) erabili ahal izatea heziketa egokiaren bitartez, esperimendazioa, adierazpen eta erlijio askatasuna. 5. *Emozioak*: pertsonekin harreman afektiboak eduki ahal izatea, eta gure afektibitatea bete-betean garatu ahal izatea. Giza batzueko eren defentsa. 6. *Arrazoi praktikoa*: ongiaren ulertzeko era egin ahal izatea eta bizitza-proiektua garatu ahal izatea. 7. *Afiliazioa*: bizi ahal izatea batzuekin eta batzuen-tzat. Gizartearen parte hartzea. Autoerrespetorako oinarri sozialak ematea. 8. *Beste espezi batzuk*: ingurumenarekin errespetuan eta era jasankorrean bizi ahal izatea. 9. *Jolasa*: aisia eta denbora librea. 10. *Norberaren inguru politikoaren* (partaidetza politikoa) eta *materialaren* (propietateak eduki ahal izatea, lana bilatzeko eskubidea izatea...) *kontrola*.

thea . Gure helburua da berriro azpimarratzea funtsezkoena dela aitortzea Estatuak konprometitu behar duela oinarritzeko gaitasun horien zehaztapenean. Gizartearekiko duen erantzukizunaren barnean kokatu behar du. Duda gabe estatuak badu zer esan auzi horretan, hau da, zeintzuk gaitasun sustatu behar diren eta zeintzuk diren bermatu behar diren gaitasun horien gutxieneko mailak

Era berean, onartu behar dugu estatuak ez duela bakarrik egon behar zeregin horretan. Gizarteren esparru guztietan dauden antzezle guztiak deituta daude zeregin horretara. Lehenago esan dugun bezala, sare sozialek edo Hirugarren Sektoreak berebiziko garrantzia du hiritarren eskubideen defentsan.

Sare sozial hauek, gizarteko esku-hartzearen esparruan lan egiten dutenek batez ere, giza zerbitzuen hornitze eta banatze lana egi dute "gabe" kolektiboekin. Horiei egokitu zaie nagusiki baliabideen gestioaren erantzukizuna giza urgentziak partzialki edo zatika atenditzeko. Ongizate zerbitzuen enpresarilizazio horrek ekarri du sare sozial batzuen gelditzea, ezen sare horiek asistentzia lanetan zentratu baitira, eta gainera *mikro* mailan. Horrexegatik, orain ahulegiak dira egiturazko aldatetarako sustatzeko, eta hauxe izan zen bere garaian beren izateko arrazoia. Horien zatitzea, helburu sozialen gorpenerako batzuek hartu duten gehiegizko pisua, eta abar dira sare hauen eraldatzeko gaitasuna eta motibazioa zalantzan jarri dituzten arrazoiak. Argi dago eraldatzeko ahalmen horren funtzioak eta helburuak argitu behar direla. Era berean, hausnarketa sakona beharrezkoa da hiritartasuna eraiki eta garatzeko duten funtzioari buruz. Gogoratu behar dugu Estatuari ere badagokio- la aukerak eta gaitasunak bermatzea sare sozial horien motibazioa bizi- rik mantentzeko.

Espero dezakeguna da positiboki erantzutea giza bazterkeriaren kontrako beren ekintzak esanguratsuak izateaz gainera, eraldatzaileak ere izatea. Orain pentsa dezagun gutako bakoitzak zein funtzio bete nahi duen hiritartasuna eraikitzekeo prozesuan. Hemen espero dezake- guna da "guztiok" zeregin horretan erantzuleak "berdinki" sentitzea.



# Erreferentziak

- 12/1998 *Legea*, maiatzaren 22koa, Gizarte Bazterkeriaren aurkakoa (EHAA 105; 98/06/08koa).
- AÑÓN ROIG, M.J., eta GARCÍA AÑÓN, J. (koord.), (2002). *Lecciones sobre derechos sociales*. Tirant lo Blanch, Valentzia.
- AÑÓN, M.J. (2000) "El test de la inclusión. Los derechos sociales", *Askoren artean*. (A.Antón ed.), *Trabajo, derechos sociales y globalización*. Bartzelona: Icaria.
- BOBBIO, N. (1993). *Igualdad y libertad*. Bartzelona-Buenos Aires-México: Paidós eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren HEZI.
- CASTEL, R. (1997). *La metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado*. Buenos Aires: Paidós.
- COM (2007) 359/2007eko ekainaren 27ren amaiera: *Towards Common Principles of Flexicurity: More and better jobs through flexibility and security*. [http://ec.europa.eu/employment\\_social](http://ec.europa.eu/employment_social).
- COM (2007) 620 amaiera: *Gizarte babesaren modernizatu justizia sozial handiago lortzeko eta kohesio ekonomikoa indartzeko: sustatzea lan merkatutik urrunen dauden pertsonen inklusio aktiboa*. Bruselak, 2007. 10.17. <http://eur-lex.europa.eu>.
- DE LUCAS MARTÍN, J. (2001) "Hacia una ciudadanía europea inclusiva. Su extensión a los inmigrantes". *Revista CIDOB d'afers internacionals*, znb. 53, [www.cidob.org/castellano/publicaciones/Afers/53lucas.cfm](http://www.cidob.org/castellano/publicaciones/Afers/53lucas.cfm).
- DE LUCAS MARTÍN, J. (2006). "La ciudadanía basada en la residencia y el ejercicio de los derechos políticos de los inmigrantes". *Cuadernos electrónicos de Filosofía del Derecho*, znb. 13, [www.uv.es/CEFD/13/delucas.pdf](http://www.uv.es/CEFD/13/delucas.pdf).
- DE LUCAS MARTÍN, J. (2006). "La ciudadanía para los inmigrantes: una condición de la Europa democrática y multicultural", *Eikasía: Revista de Filosofía*, znb. 4, 2006. [www.revistadefilosofia.com/ciudadania.pdf](http://www.revistadefilosofia.com/ciudadania.pdf).
- DE LUCAS MARTÍN, J. (2007). "Integración política, participación y ciudadanía: un balance", *Entelequia*, znb. 4,. [www.eumed.net/entelequia/pdf/2007/e04a14.pdf](http://www.eumed.net/entelequia/pdf/2007/e04a14.pdf).

- Europako Batzordea (2005). *Babesa eta Gizarte-Bazterkeria Baterako Txostena 2005*, <http://eur-lex.europa.eu>.
- FERRAJOLI, L. (2001). *Derecho y Razón. Teoría del galantismo penal*. Madril: Trotta.
- FERRAJOLI, L. (2001). *Los fundamentos de los derechos fundamentales*. Madril: Trotta.
- GARCÍA SAN MIGUEL [arg.] (2000) *El principio de igualdad*. Madril: Dykinson.
- Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Plana 2007-2009. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza. <http://www.juslan.ejgv.euskadi.net> [2007ko abenduan deskargatua].
- KYMLICKA, W. eta NORMAN, W. (1997). "El retorno del ciudadano. Una revisión de la producción reciente en teoría de la ciudadanía", ikus *La Política: Revista de estudios sobre el estado y la sociedad*, zenb 3, Bartzelona, Paidós.
- MARSHALL, T.H. (1950). *Citizenship and Social Class*. London: Pluto Press.
- Nazio Batuen Txostena. "Objetivos de Desarrollo del Milenio. Informe de 2007" [New York, 2007] Askoren artean. "Una propuesta de consenso sobre el concepto de exclusión. Implicaciones metodológicas", *Revista del Tercer Sector*, znb 5. Luis Vives Fundazioa, Madril, 2007, 15-57 orr.
- NUSSBAUM, M. (2002). *Las mujeres y el desarrollo humano*. Bartzelona: Herder.
- NUSSBAUM, M. (2006). *Las fronteras de la justicia. Consideraciones sobre la exclusión*. Bartzelona: Paidós.
- PAUGAM, S. (2007). *Las formas elementales de la pobreza*. Madril: Alianza.
- PUYOL, A. (2001). *El discurso de la igualdad*. Bartzelona: Crítica.
- SACHS, J. (2005). *El fin de la pobreza*. Bartzelona: Debate.
- SASIA, P.M. eta DE LA CRUZ, C. (2008). *Banca ética y Ciudadanía*. Madril: Trotta.
- TAYLOR, Ch. (1998). *Los orígenes del yo*. Bartzelona: Paidós.
- TOWNSEND, P. (1979). *Poverty in the United Kingdom*. London: Allen Lane and Penguin.
- VALCÁRCEL, A. (2005). "Libertad e Igualdad" in Cerezo Galán, P. [arg.]. *Democracia y virtudes cívicas*. Madril: Biblioteca Nueva, orr. 259-287.
- VALCÁRCEL, A. [arg.] (1996). *El concepto de igualdad*. Madril: Pablo Iglesias.
- YOUNG, I.M. (1998). *La justicia y la política de la diferencia*. Madril: Cátedra.



# Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak, 46 zk.

Liburu honetan berdintasun printzipioari buruzko hausnarketa aurkezten da galdera bi erantzuteko asmoz. Lehengo: zer behar da berdintasunetik bazterkeriaren kontrako printzipio eraginkorra bihurtzeko? Bigarrena, zein zabalera eduki behar du hiritartasun-eskubideetatik baztertutik dauden pertsonen hiritartasun kondizioa lortu ahal izateko? Agian lan honek ez die behar bezala galdera horiei erantzuten. Ez, behintzat, oinarri horietako bakoitzak behar duen sakontasunarekin. Hala ere, argudio batzuk garatu ditugu erantzun batzuk eman ahal izateko.

**Cristina de la Cruz** Deustuko Unibertsitateko irakaslea da. Era berean, Etika Mintegiko Batzordearen kidea da eta *Etika aplikatuaren* ikerketa lan-taldea koordinatzen du. Bere azken argitalpenen artean *Banca Ética y Ciudadanía* (Trotta, 2008) gogoratu behar da.

**Alfredo Olarra** Getxoko Aixerrota BHIko irakaslea da. Gazteen artean Etika zabaltzea eta irakasle lana uztartzen ditu. Bere ikerketa-esparrua sentimenduak eta adimena lotzeko bidetik doa "*ethica cordis*" deritzonaren bitartez.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL



**Deustuko  
Unibertsitatea**

